


Sexu askapen eguna

EKAINAK 28

Legeak lege,
berdintasuna
lekutan

- **Marinaleda** Kapitalismoaren erdian, oasia Andaluzian
- **Oier Guilan** «Poesiaren eta antzerkiaren arteko muga lausotzen joan zait eta onartu egin dut» • **Thomas Bidegain**, gidoilaria «Zinemak amets handietara eramaten zaitu eta oso goitik eror zaitezke» • **Larrun** Klase ertaina jomugan
- **Net Hurbil** Greziako telebista publikoaren itzalaldia, aurrekari arriskutsua Europan
- **Zarauzko postalak. 36ko gerra** Galtzaileen historia ekarri du gogora Amagoia Gurrutxagak



dokumentalak.com

Euskarazko dokumentalen biltegia sarean

Ostiralero lan berri bat ikusgai

Dagoeneko 140 dokumental eskura

Amerikanuak
Anuken egia
Arrhash, pozoina
Banlieues. Pariseko errebolta
Basque hotel
Bidaia Intimoak
Botilen hilerria
Companys eta Agirre azken erbesterantz
Debekatuta dago oroitzea
Egunero
Egunkaria, hamar urte geroago
Elburua Gernika
Euskal Herria: Ezkutuko zorra
Euskararen jatorria: Enigma europar bat
Gudari baten egunerokoa
Haizea eta sustraiak
Insumisioa. 20 urte desobeditzen
Iparralde XXI

Irakeko kurduak, bizitza bazterbidean
Iruña-Veleiako misterioa
Itoitz hustu arte
Itsasoren alaba
Langile autonomia
Leku hutsak, hitz beteak
Nire bizi osoa espetxean
Nömadak Tx
Oroitarria
Perurena
Pluja seca - Euri lehorra
Sagarren denbora
Sahara marathon
Salda badago
Santi Brouard. Euskal Herria Osagai. Duintasuna omen
The Yes Men fix the world
Tortura Euskal Herrian

...eta askoz gehiago

**Zure lanen bat kanal honetan sartu nahi baduzu,
jarri gurekin harremanetan:**

multimedia@argia.com

www.twitter.com/dokumentalak

www.facebook.com/dokumentalak

argia.com

EGUZKI
BIDEOAK

elkarlanean





Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAKO edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egilek aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Ixabel Bereziartua. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuinta. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2013ko ekainaren 30a, 2.375. zenbakia

ASTEKO GAIA

HOMOSEXUALEN ESKUBIDEAK Afrikan beltz, European zurí. NAGORE IRAZUSTABARRENA / 4

PERTSONAIA

THOMAS BIDEGAIN: «Gidoigilea izatea sotoan lan egitea da». SUSTRAI COLINA / 10

GAIK

AMAGOIA GURRUTXAGA URANGA: «Lehen, bigarren eta hirugarren mailako minen liga antolatzea anti-terapia da». GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 15

IRITZIAREN LEIHOA

UDARAKO LANAK GARBIÑE BIURRUN MANCISIDOR / 18

EZ BERBAZKOAK OIER ARAOLAZA / 20

MERENG E FRANTSESA NAFARROAKO AHT PROIEKTUA

BAINO SENDOAGOA? JULIO VILLANUEVA / 21

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 19

TXANDAN *La Grande Boucle*. AMETS ARZALLUS / 20

ZIRTA *Le swing*. IRATXE ESNAOLA / 22

ERDIKO KAIERA

OIER GUILLAN: «Sekulako ikasgaia da idazlearen egoari gaina hartzea». GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 24

LITERATURA AMAIA ALVAREZ URÍA, MIKEL ASURMENDI / 28

MUSIKA IKER BARANDIARAN / 29

IHESI HAZPARNE (LAPURDI) Haritzetan barrena.

ITXARO BORDA / 30

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 34

ALEA Euskal sena mundura zabaldu zenekoa.

MYRIAM GARZIA / 35

ZIENTZIA ETA TEKNOLOGIA JOXERRA AIZPURUA / 36

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 37

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 38

TERMOMETROA

MARINALEDA Berdintasuna eta solidaritatea oinarri.

AMAIA ZABALA TOLOSA / 39

LAN MUNDUA EUSKALDUNTZEN Bezeroak beti euskaraz egingo balu? ONINTZA IRURETA AZKUNE / 44

TURKIA Desobedientzia zibila indar hartzen. LANDER ARBELAITZ / 46

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 47

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 47

NET HURBIL Telebista publikoa, salgai jarrita dagoen Greziaren ikur. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

HOMOSEXUALEN ESKUBIDEAK

Afrikan beltz, European zuri

Frantziako Estatuan homosexualen arteko ezkontzaren legea onartu denetik, Euskal Herri osoan sexu bereko bikoteek heterosexualen eskubide berak dituzte, ezkontza zibilari dagokionez behintzat. Afrikako egoera gordinarekin alderatuta, Euskal Herriak eta, oro har, Europak paradisua behar lukete homosexualentzat. Baina legeak lege, LGBT komunitateko kideek oraindik urrun dute erabateko berdintasuna.

| NAGORE IRAZUSTABARRENA |

2010EAN, MUNDUAN gehiago ziren homosexualitatea heriotzaz zigortzen zuten herrialdeak, homosexualen arteko ezkontza lege onartzen zuten herrialdeak baino. Hiru urte geroago datu horri buelta eman zaio. Gaur egun ezkontza homosexuala legekoa da 11 herrialdetan: Herbehereak (2001), Belgika (2003), Espainia (2005), Kanada (2005), Suedia (2009), Norvegia (2009), Portugal (2010), Islandia (2010), Argentina (2010), Uruguai (2013) eta Frantzia (2013). Edo 11 herrialde eta erditan, AEBetako egoera anitza eta Mexikoko Barruti Federala kontuan hartuta. Aurki zerrenda zabal daiteke, Erresuma Batuan, esaterako, legea eztabaidatzen ari direlako. Eta badira heterosexualen ezkontza eskubide berdinak izan ez arren, nolabaiteko eskubideak dituzten hainbat herrialde: Zeelanda Berria, Australia, Hegoafrika, Israel, Brasil... eta aurreko zerrendan aipatu gabeko Europako herrialde gehienak.

Beste aldean, homosexualitatea heriotzaz zigortzen duten zazpi herrialde daude: Iran, Saudi Arabia, Yemen, Mauritania, Sudan, Somalia (hegoaldeko hainbat eskualdetan) eta Nigeria (iparraldeko hainbat eskualdetan). Eta zerrenda murriztu beharrean, aurki beste bi erants dakizkieke: Uganda eta Etiopia.

Atariko datu larria aldatu izanagatik, munduko mapa oso desorekatua da oraindik. Herrialde gehienek (70etik gora) lege zigortzen dute homosexualitatea (heriotza zigorra ezartzen duen zazpikoteaz gain). 1990eko maiatzaren 17an Munduko Osasun Erakundeak (MOE) homosexualitatea gaixotasun zerrendatik ezabatu zuen. Baina MOEk

1990ean MOEk homosexualitatea gaixotasunen zerrendatik kendu zuen. Baina 23 urte geroago, munduko herrialde gehienetan gaixotasuna ez ezik, delitua ere bada LGBT komunitateko kide izatea

ordezkatzeko omen duen mundu horren zati handi batek azken 23 urtetan entzungor egin die erakundearen esanari: herrialde gehienetan gaixotasuna ez ezik, delitua ere bada LGBT komunitatekoa izatea. 2008an Frantziako Gobernuaren proposamen bat bozkatu zen Nazio Batuen Erakundearen (NBE), munduan harreman sexualak despenalizatzeko. Proposamenaren alde bozkatu zuten Europar Batasuneko herrialde guztiek, Argentinak, Brasilek, Txilek, Kolonbiak, Venezuelak eta Kubak. Baina ezezkoak garbi irabazi zuen 57 botorekin. Besteak beste, herrialde hauek egin zuten despenalizazioaren kontra: AEB, Txina, Errusia, islamdar konferentziako kide diren herrialdeak eta, nola ez, Vatikanok.

Afrikako egoera beltza

Geografikoki kontinentearen hegoaldeko muturrean egonagatik zentzu askotan mendebaldartua dagoen Hegoafrikan ezik, Afrikako herrialde guztietan homosexualitatea lege kontrakoa da. Lau herrialdetan heriotza zigorra indarrean da homosexualitate delituengatik, eta beste bi herrialde bidean dira. Legeria homofobo horien aplikazioaren azken adibidea, edo Mendebaldeko komunikabideetara iritsi den azken berria behintzat, Marokon gertatu da. Iragan maiatzean, Rabateko aldirietako parke batean aparkatutako auto batean, 28 eta 20 urteko bi gizon atxilotu zituzten. Homosexualitate ekintzak eta moral publikoaren aurkako atentatua leporatu zizkieten. Tamarako lehen instantziako auzitegian epaitu dituzte eta epaiaren zain daude orain; zigorra arintzeko leporatutako delituak onartu dituztenez, eta delituan



Ezkontza homosexualaren legeak Frantziako gizartea zatitu du. Goian, homosexualen arteko ezkontzaren kontrako manifestazioa; afixetako batek “guztiak heterosexualen haurrak gara” dio, inozoki. Azpian, lege berriaren aldeko agerraldia, besteak beste, “maitasunaren izenean” eskubide berdintasuna eskatzen duena.

harrapatutako lehen aldia denez, “soilik” 6 hilabete eta 3 urte bitarteko kartzela zigorra eta 1.000 dirhameko isuna jasoko dutela aurreikusten da.

Ekialde Hurbileko eta Asiako egoera ez da askoz hobe. Kasu honetan ere salbuespen bakarra dago: Israel ez beste herrialde guztietan homosexualitatea delitua da.

Amerika bi muturren tartean legoke. Kari-beko uharte askotan homosexualitatea legez kontrakoa da. Baina gero eta herrialde gehiagotan onartzen ari dira LGBT kolektiboaren eskubideak (edo eskubide batzuk bederen). AEBen egoera anitz eta kiribilak atal berezia beharko luke. Adibidez, 2003an, Massachusetsen sexu berekoen arteko ezkontza onar-

Ugandan homosexualen aurkako heriotza zigorra onar daiteke aurki


UGANDAN 14 urte arterainoko espetxearekin zigortzen dira gaur egun jarrera homosexualak. Baina 2009an David Bahati parlamentukideak aurkeztutako lege proiektua onartuz gero, zigorrek okerrera egingo dute nabarmen. Homosexualitate delitua berriz egiten dutenentzat, GIBa dutenentzat eta harreman homosexualak 18 urtez azpikoekin dituztenentzat heriotza zigorra aurreikusten du proiektuak. Gainerako homosexualentzat bi bitarteko espetxea ezartzen du, Ugandatik kanpoko ugandar homosexualak estraditatzeko aukera barne hartzen du eta homosexualen eskubideen aldeko adierazpenak egiten dituzten elkarte, komunikabide, enpresa eta gizabanakoentzat ere zigor penalak zehazten ditu. Gainera, herritarrak, jarrera eta ekintza homosexualen lekuko izanez gero, salatzeria behartuko lituzke legeak.

Lege proiektua ez atzera ez aurrera ibili da azken urteotan Ugandako parlamentuan. Azkeneko 2012ko otsailean aurkeztu zen, baina Ugandako Gobernuak auzia atzeratzea erabaki zuen. Aurki berriro eztabaidatuko du parlamentuak, Ugandako 500.000 homosexualen bizia (eta hauen alde dauden beste

milaka batzuen askatasuna) arriskuan jarritz.

Dena den, oraingoz legea onartu ez izanak ez du esan nahi Ugandan homosexualak heriotzaz zigortzen ez dituztenik. 2011ko urtarrilaren 26an David Kato LGBT ekintzailea eraso zuten Kanpalako etxean. Mailuz bitan buruan jo zuten eta ospitalera bidean hil zen. Poliziaren arabera lapur arruntek hil zuten Kato, baina nazioarteko hainbat erakundek berehala gezurtatu zuten bertsio ofiziala, eta Katoren heriotza eraso homofobikoa izan zela adierazi. Gainera, Katoren zigor “alegala” ez zen heriotzarekin amaitu. Haren “aldeko” hiletetan, apaiz ebanjeliko batek homosexualitatea eta Kato bera kondenatu zituen, eta auzokideek Katoren gorpua ehorzteari uko egin zioten. Azkenean, hildakoaren lagunek herritarrei aurre egitea eta gorpua ehorztea lortu zuten.

Legearen eta gizartearen mehatxu etengabeari muzin eginez, joan den urteko abuztuaren 4an, dozenaka ugandar ausart batzuek gay harrotasuna ospatzea erabaki zuten. Kamioneta baten atzetik, Kanpalako hondartzetara bidean, desfile alai eta arriskutsua egin zuten, harik eta poliziak ekitaldia bertan behera utzi zuen arte.



DAVID ROBINSON



2012ko abuztuaren 4ko “Beach Pride” ekitaldiko irudiak. Gurean begi-bistakoak eta jakinak diren egiak afixetan esateko beharra dute Ugandan. Azken argazkiko kartel batek zera dio: “Gayak hiltzeak ez du ezer konpontzen”. Eta besteak: “Afrikarra eta gaya izatea ez da aukera”.

HOMOSEXUALEN ESKUBIDEAK

tzen zen bitartean, beste 16 estatutan “sodomia” legeak oraindik indarrean zeuden. Kalifornian, 2008an, 22. proposamenak ezkontza homosexuala onartu zuen eta urte berean 8. proposamenak bertan behera utzi. AEBetako Auzitegi Gorenaren erabakiaren zain, gaur egun, estatu horretan sexu berekoek ez dute beren artean ezkontzeko aukerarik, baina beste inon ezkonduz gero, estatuak eskubide guztiak onartzen dizkie.

Europako oasia

LGBT eskubideen munduko mapa ilunean Europak distira egiten du. Gay ezkontza onartua duten munduko 11 herrialdeetatik 8 Europakoak dira. Beste 10 herrialdetan sexu berekoek legalki batzeko aukera dute, heterosexualen “ezkontza”ren formula galarazita izan arren. Eta kontinente osoan homosexualitatea zigortzen duen legerik ez dago.

Gizartearen iritzia ere legislazioaren bide beretik doala dirudi, inkestei jaramon eginez gero. Homosexualen arteko ezkontza eta adopzio eskubideez galdetuta, Europako herritarrek baiezko biribila erantzuten dute. Herrialde gehienetan %80tik gorakoa da aldeko portzentajea.

Oasi horren erdian dago Euskal Herria. 2005etik aurrera Hegoaldean ezkontza eta

adopzioa legekoak dira eta udaberri honetan gehitu zaio Iparralde. Euskal gizartearen jarrera ere baikorra da: EAEn %87 sexu berekoen arteko ezkontzaren alde dago, eta %81 legezko sexu aldetaren alde, Eustatek emandako datuen arabera. Datu batzuk aldamenekoekin alderatuta ere, euskal gizarte nabarmen gailentzen da. EAEn 25 eta 29 urte bitarteko %2ak soilik uste du homosexualitatea gaixotasuna dela; Espainiako Estatuan, aldiz, adin tarte berean portzentajea %10ekoa da.

Europarren zurikeria

Datu estatistiko espezifikorik ezean, ez dirudi Iparraldeko egoera Hegoaldekoaren parekoa denik. Jean Michel Colo Arrangoitzeko auzapezak bi gizon ezkontzeari uko egin berri dio eta, horrenbestez, homosexualen arteko ezkontzaren legeak Frantziako Estatuan eragin duen polemika Ipar Euskal Herrira ere iritsi da. Lehen esan dugu Europa osoan herritar gehienak ezkontza homosexualaren alde daudela, baina datu kaxkarrena Frantziakoa da: galdegindako herritarren %52 dago legez onartu berri denaren alde; juxtu-juxtuan gehiengo izanik ere, auziak eragin duen zatiketa adierazten du. Laurent Bouvet adi-tuaren esanetan, Frantziako Estatuan eztabai-

EGIZU HARPIDETZA
EGIOZU HARPIDETZA

Hego Euskal Herrian 145 € / Ipar Euskal Herrian 176 €

Izen-abizenak

Helbidea

Posta kodea Herria

Herrialdea

N.A./I.F.K.

Telefonia

e-posta

Kontu zenbakia (20 digitu)

Ikasle bazara (unibertsitate / euskaltegi) edo
Gazte Txartela baduzu %25eko deskontua harpidetzan.

943 37 15 45 • harpidetza@argia.com

Jaso lekuan
kobratu
SEILORIK EZ

argia

1-FD POSTA KUTXA
20160 LASARTE-ORIA
(GIPUZKOA)

TOLESTU

ERANTZUN KOMERTZIALA
Baimen zkia. 17352
(B.O.C. 22/99-06-02koa)

TOLESTU

ZELO ARERA
HERRIAN (PM)

Iruñean musu emateagatik erasoak

IRAGAN APIRILAREN 6AN, goizeko 8:30ak inguruan, Iruñeko Zitadelaren babes erretenetatik gertu, 18 urteko bi mutilek agurtzeko musu eman zioten elkarri. Orduan, adin beretsuko beste hiru mutil hurbildu zitzaizkien, eta ukabilkadaka hasi. Sabelean jo zioten bati, aurpegian besteari. Ondoren, hirukoteak ihes egin zuen, irain homofoboak bota bitartean. “Gu beraien herrialdean bizi ziterik ez zutela nahi eta Ugandara joateko esan ziguten”, adierazi zuen gazte erasotako batek. “Ezustearekin harrapatu gintuzten. Ez genuen uste Iruñean, XXI. mende betean horrelakorik gerta zitekeenik, musu emateagatik joko gintuzketenik. Gainera, kale erdian ere ez geunden, toki nahiko baztertuan baizik”.

Berehala Nafarroako Ospitalera joan ziren. Arreta egin zieten medikuek gertatutakoaz galdegin zieten, salaketa jartzeko modukoa ote zen jakiteko. Baina gazteek poliziarengana ez jotzea erabaki zuten. “Nire lagunaren etxeko egoera ez da erraza, ingurukoek ez dute bere joera sexualaren berri, eta poliziarengana jotzeak arazo gehiago eragingo zizkiola pentsatu genuen”.

Handik egun batzuetara, ordea, Kattalingorri Nafarroako LGBT arreta zentrorra jo zuten laguntza eske. Bertako kideen gomendioari jarraiki, salaketa legalik egin gabe ere, gertatutakoa publikoki salatzea erabaki zuten. Sare sozialetan eta hainbat komunikabideetan zabaldu zuten erasoaren berri, beti ere biktimen anonimotasuna atxikita. “Eraso ugari salatu gabe geratzen dira, biktimek oraindik beldurra eta bebesgabatasuna sentitzen dutelako”, diote Kattalingorriko kideek. “Biztanleriaren zati handi batek uste du LGBT komunitatean urrezko aroa bizi dugula, eskubideei dagokionez azkenaldian egiten ari diren lege aldaketak direla eta. Baina gaur egun Iruñea seguru eta lasaia oraindik ere horrelako eraso homofoboak gertatzen direla adierazten du errealitate gordinak”.

EHGAMek argitaratutako datuek diote Iruñeko eraso ez dela salbuespena. Datu horien arabera, EAEn, 2012. urtean, 500 salaketatik gora egin ziren eraso (fisiko nahiz psikologiko) homofoboengatik: 273 Bizkaian, 192 Gipuzkoan eta 49 Araban. “Zenbat eraso izango ziren benetan?” galdetzen dute EHGAMeko kideek, Kattalingorrikoen kezkekin bat eginez.

dak “luze jo duelako” eta “legearen kontrakoak aldekoak baino mobilizatuagoak” daudela gordindu omen da auzia.

Baina Frantziako datuak gainerako herrialdeetakoak baino “errealagoak” direla pentsatzeko arrazoiak ere badaude. Europako Oinarritzko Eskubideen aldeko Agentziak (FRA) Europa osoko LGBT komunitateko 93.000 kideri homofobiaz galdeketa egin die eta emaitza harrigarriak lortu ditu. Batez beste, inkestaren %47k erantzun dute azken 12 hilabeteetan diskriminazioa jasan dutela. Portzentajea Europako batez bestekoa baino apalxeagoa Frantziako Estatuan (%41) eta are txikiagoa Espainiakoan (%38), baina oso kopuru handia da, hala ere. Eta europarren hipokrisia adierazten du: herritarrek diote ez direla homofoboak, baina LGBT komunitatekoen esperientziak kontrakoak adierazten du nabarmen.

Belaunaldi berri homofoboa?

FRAREN inkestaren emaitza eskandaluzkoa da gazteenen diskriminazioari dagokionez.

Europako Oinarritzko Eskubideen Agentziak LGBTko komunitateko 93.000 kideri galdeketa egin die eta %47k erantzun dute azken urtean diskriminazioa jasan dutela

Eskolako nahiz institutuko ikasle homosexualen %91k jasan dituzte jarrera homofoboak azken urtean (Espainiako Estatuan portzentajea Europako batez bestekoaren berbera da, eta Frantziakoa puntu bat baxuagoa).

2010-2011 ikasturtean Gehitu elkarteak Donostiako bigarren hezkuntzako zentroetan egindako inkestak ere europarren moral bikoitza adierazten du nolabait. Ikasleen %94,1ek jarrera homofobikoak arbuizatzaren dituztela erantzun zuten. Baina %84ek irainen lekuko izan direla zioten eta %25ek diskriminazioan parte hartu dutela onartu zuten. Eta beste datu kezagarri bat: 2000. urtean EAEko gazteen %4k ez zuten auzoan homosexualik nahi; 2010ean %14raino igo zen kopurua.

Belaunaldi berrien jarrera homofobiko hori adinean eta hezkuntzan aurrera egin ahala zuzenduko da? Ala, besteak beste krisialdiak eraginda, jarrera kontserbadoreak eta homofobia hazten ari dira europar paradisuak?

Teorian, European eta bereziki Euskal Herrian LGBT komunitateko kideen egoera “pribilegiatua” dela esateko tentazioa handia da, batez ere Ugandako egoerarekin alderatuz gero. Baina praktikan, esaterako, Iruñeko gazte batzuk jipoitzen dituztela eta Ugandara aldegitiko gonbitea luzatzen dietela jakitean, ikusten da euskal gizarteak oraindik harro egoteko motibo gutxi duela. ■



Eusko Jaurlaritzak

**sexu-orientazioagatiko
eta genero-identitateagatiko**

**diskriminazioaren aurka eta
berdintasunaren alde abian**

www.euskadi.net/berdindu

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGU ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

«Gidoigilea izatea sotoan lan egitea da»

“Iduzki denean, zein den eder itzala...”.

| SUSTRAI COLINA |

Argazkiak: Dani Blanco

Istorioak ez, filmak idazten omen dituzu.

Godard maisuak film bat ideia lauso eta irudi argien ezkontza dela dio. Ezin gara gardene-giak izan istorioari dagokionez, baina probe-txuzko irudi distiratsuak behar ditugu. Istorio onak milaka daude kazetetan, pelikula onak burutzeko gai diren zuzendariak aldiz... Nola kontatu? Nola erabili zinemaren kodea kontatu nahi dugunaren mesedetan? Nola bihurtu zinema istorio horren atzamarrera eginda-ko eraztun? Horixe da zinemagileon etengabeko buruko mina. Aspertu naiz euren istoriora soilik mugatzen diren filmez. Ongi-bidean, pelikula bat beste zerbait da, istorioa beste dimentsio batez janzteko gai den zerbait. Ni arras zinefiloa naiz, filmak irensten ditut, zinemaren historiari buruz anitz irakur-tzen dut, nire tai gabeko gogoetagaia da, eta ezinbestekotzat dut zinemaren forma, gara-pena eta tresnari buruzko galdera teorikoetan galtzea. Galtzen naizenero, alta, txikitan wes-tern zaharrei so anaiak indioak euskaldunak zirela azpimarratzen zidala oroitzen dut. Horixe da istorioak eta filmak idaztearen arteko desberdintasuna.

Zuen etxean nehor ez zen zinema mundukoa.

Oso mundu itxia da zinemarena. Alabaina, betiko lagun-minaren amak antzinako film amerikarrak proiektatzen zituen zinema-areto batean egiten zuen lan, eta 9 urte neuzkanetik 20ra bitarte sala horretan eman diren pelikula guztiak ikusi ditut urririk. Beti izan dut zine-marako harra, beti pentsatu dut huraxe zela nire mundua, baina gure etxean hortik legoata-ra geundenez ez nekien zine-ofizioen berri, ez nekien film bat nola egiten zen, ez nintzen inoiz grabaketa batean egona... Gainera, gure aitari ekonomia ikasketak egin behar nituela

sartu zitzaion kaskoan, eta itzuli-mitzuli, *busi-ness* arlotik hartu nuen lur zineman. Ez nintzen banatzaile ona izan, ekoizle biziki txartzat ne-kan nire burua, baina gidoiak idazten hasi orduko konprenitu nuen huraxe zela nirea. Zorionekoa naiz une egokian jende aproposa ezagutu dudalako. Zinemak amets handietara eramaten zaitu eta oso goitik erori zaitezke. Bakar-bakarrik gelditu zaitezke goizetik gaue-ra, baina zinema egin nahi baduzu jendea kon-bentzitzera behartuta zaude, jende anitzekin tratatu eta aliantzak egitera: bakarrik jai duzu.

Alde ekonomikoak alde artistikoa baldintza-tzen du?

Ikusleekin partekatu nahi duzuna pantailara-tzeko proposamen artistiko adostua behar duzun unetik, bai. Hori hala, badira ikuslego murritza duten film onak, baina ez dira gutxi jendetza eta dirutza bildu dituzten pelikula arrakastatsu bezain ederrak. Ez dut uste publikorik gabeko film zoragarriak idaztera kondenatuta gaudenik. Alta, malezia behar da proiektuaren neurria irudikatzen duzun ikus-

NORTASUN AGIRIA

1968ko martxoaren 23an sortu zen Neuilly sur Seine-n (Paris, Frantzia). Aita zuberotarra izaki, beti izan du lotura estua Euskal Herriarekin. Ekonomia eta kudeaketa ikasketak egin zituen Parisen, zinema munduan banatzaile eta ekoizle gisan hasi aitzin. Arlo ekonomikotik arlo artistikora jauzi egin eta gidoigintzan lakatu zen; beste hainbaten artean, *Un Prophète* (Oscar-etara nominatua), *A Perdre la Raison*, eta *De Rouille et d'os* arrakastatsuen gidoigilea da. 2010ean Frantziako gidoi onenari zegokion César saria jaso zuen *Un Prophète* lanari esker.





le kopurura egokitzeko. Zuzendaria hurbiltzen zaizunean zeruan dagoen ideia batekin, gidoigilearen lana jendea bertaratu ahal izateko eskailera eraikitzea da. Horregatik dira genero pelikulak hain demokratikoak. Denek ulertzen dute zer dagoen jokoan, kontu sinple eta jakinak dira aipagai, baina justu horrek ahalbidetzen du espetxeen egoera, Britainia-ko arrantza, edo euskal gatazka lantzea. Ikuslea “ez, ez da egia!”, “ez zaitez joan!” edo “esaiozu bal!” oihukatzeke tesituran jartzen baduzu irabazi duzu. Horixe da hurrek txo-
txongiloei so duten jarrera. Horretarako ez zaude mundua xehatzera, elur-jauziak, lurikarak eta uholdeak probokatzera behartuta, hori bezain hunkigarri eta larriagoa izan liteke bizikleta galtzen duen haurtxoaren istorioa. Garrantzitsua ez da gertakariaren tamaina, kontatzeko manera baizik.

Eskaileragile iaioa da gidoigile ona?

Gidoigile ona zuzendari on batekin lan egiten duena da. Zuzendaria da pelikula ontzen duena, bere anbizioak markatzen du filma. Gu alfonbra gorritik eta glamouretik biziki urrun gaude. Gidoilaria izatea sotoan lan egitea da. Publiko zabalak ez du zertan jakin nork idatzi duen filma, aski da lana eskaintzen ahal dizun dozenak jakitea. Zuzendariak pilotuak dira eta gu garajeen zain gauden mekanikariak. Pilotuak esango digu azeleragailua zapaltzen duenean zarata arraro bat entzuten dela, eta guk kapota zabaldu eta arazoa karburadoretik datorrela argituko diogu.

Zuzendaria da gidatuko duena, berak jarriko du bere bizitza jokoan. Gu tailerrean gaude eta aldi berean auto desberdinez arduratu gaitzke. Neurririk ez duen lana baita gurea, ez dago deus sobera eta gutxiegi lan egitearen artean. Hala, umiltasun eskola handia da gidoigintza. Nik argi dut idazten dudanaren %80ak zakarrontzian bukatzen duela, eta 30 aldiz berridatzi dudana eszena beti izanen dela 10 aldiz berridatzitakoa baino hobea. Gidoilaria ez baita idazle ona, berridazle ona baizik.

Toni Morrison-ek argi dio: “Intriga bakarra dago: deus ez da dirudiena”.

Gidoilarion urrezko araua da. Gure protagonista nazia bada, haur ezindu bat sortuko zaio, eta ikusleen balore eskala dantzan hasiko da. Alderantziz, protagonista jator, zintzo eta noblea badugu, iragan ilun bat asmatuko diogu ikusleak talka senti dezan bere baitan. Deus ez da dirudiena. Horrek emango digu ikertzeko, hausnartzeko, eraiki eta eraisteko bidea. Horrek emango digu geruza anitzeko pelikula eta pertsonaiak egiteko manera. Zentzu horretan, interesgarria da pertsonaiak heroien gisan osatzea. Ahal bezain urrutitik abiarazi behar dituzu, ahal bezain bat traba gaindiarazi, baina ezin duzu ahanzi normalki pertsonaia on batek bi helburu dituela: lehen mailako bat eta bigarren mailako beste bat. Esaterako, protagonista lapurra bada eta kutxa gotorreko giltza duen neskarekin maitemintzen bada, bere xedeak etengabe gurutzatuko dira, ikuslearen nahi eta usteak lan-

brotuz. Horrexegatik dio David Mametek istorio bat zineman kontatzea esaldi bat egituratzea bezalakoa dela. Hala, pelikularako ikuspuntu bakarra hautatzen baduzu pertsonaia bat kontatuko duzu, bi ikuspuntu aukeratzuz gero harreman bat, eta ikuspuntu asko txertatuta unibertso bat. Eni izugarri gustatzen zaizkit ikuspuntu bakarrek filmak, pertsonaia batean sakontzen dutenak, eta pertsonaia horiek albistegietatik edo iruditeria kolektibotik ezagunak bazaizkigu loriatzen naiz. Hor bai deus ez dela dirudiena. Adibidez, ministro baten emaztea eskupekoak jasotzen harrapatu badute, konta deza-kezu dibortziatzen ari direla, ministroak dena eman arren huts egin diola, eta eskandalu politiko bat film hunkigarri bihurtu. Hori ere bada mundua kontatzea.

Zer harreman du egungo zinemak errealitatearekin?

Bi zinema mota daude: munduaz, errealitateaz, inspiratzen dena, eta beste pelikula batzuetan oinarritzen dena. Esaterako, egungo Estatu Batuetako zinemari piper bat arduraz zaio errealitatea, errealitatea islatzeko serieak dauzkate. Estatu Batuetako zinemak oso harreman gatazkatsua du errealitatearekin. Frantzian, aitzitik, alderantziz gertatzen da, zinemak errealitateari heltzen dio baina ez dakigu serieekin zer egin. Enetzat zineman eta politikan gauza bera gertatzen da. Jendearen begietara gutxiengoak existitzen hasten dira ordezkariak eraginkor bat duten unetik. Horregatik da interesgarria agertua izan ez denaren xerka ibiltzea, ikusten ez ditugun munduen defizit itzela dagoelako batetik, eta beti antzeko gauzak erakusten ditugulako bestetik. Zuzendari eta ekoizleak pertsonaiak aski jator eta goxoak ez direlako kezkatzen zaizkidanean, beti erantzuten diet munduan

“Zineman eta politikan gauza bera gertatzen da. Jendearen begietara gutxiengoak existitzen hasten dira ordezkariak eraginkor bat duten unetik”

denak ez gairela kristau-demokratak edo askatasun-zaleak. Horregatik da politikoki interesgarria pertsonaia deseroso eta iluna mugiaraztea. Hartu zakur arrazista bat, ziegatik pasatzen den oro egurtzen duena, baina bihotz istorio batean katramilatu eta arabiar batzuei ospa egiten lagunduko diena. Gehienok ezinezkotzat jotzen dugu, arrotza zaigu, baina nire lana da kasuistika hori errealitatean lotzea. Ezinbestekoa bezain zirrargarria da ikuslea horren testigu bihurtzea. Bestela, beti jende onaren artean gabiltza, gure zilbor borobilei so, eta horrela nekez aldatzen da ezer.

Nolakoa da gidoigilearen begirada?

Ofizio bakoitzak du berea. Gidoiak idazteko poliziak eta gangsterrak ezagutu ditut eta, tabernara sartzean, ez dute besteok ikusten duguna ikusten. Emaztea jurista dut eta bidea zeharkatzerakoan norbait legea tentatzen antzematen badu berehala irudikatzen du epaiketa. Nik orduak eman ditzaket jendeari begira hau eta hura imajinatzen. Hain bibote apaina duena hain baldar jantzita egotea arraroa dela, klase apalekoa dirudien beste hark zergatik ote dauzkan hiru mugikor, zer egon litekeen iparraldeko posturak eta azentu italiarra duen emakumearen gibelean... Beti iruditut zait interesgarria sozialki kokaturiko jendea. Film bat ikustean beti galdetzen diot ene buruari pertsonaiak nola ordaintzen duen alogera. Ile-apaintzaile xume baten ibilerak agertu nahi badituzu, baina filmaketa erosoago eta errazago baten mesedetan, 120 metro koadroko pisu batean bizi bada, non gelditzen da sinesgarritasuna? Gidoilariaren obsesioa da sinesgarritasuna. Horregatik ematen ditut orduak eta orduak hilerrietan paseatzen, nire pertsonaiantzako izen-abizen egokien bila. Zergatik da hain sinesgarria *Un Prophète*? Protagonistak eta ikusleak aitzina batera egiten dutelako. Egin



Liburu azoka

Donostian, ekainaren 28tik uztailaren 14ra, Gipuzkoa Plazan

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!

Zuberoan

Onizepean gaude. Etxe handi, zabal bezain baketsuaren parkean. Thomasek zigarroei filtroa kendu eta bat bestearen gibeletik erretzen ditu. Erretzeari uzteak hiltzen duela dio. Telefonoak jo eta aurrera eta atzera hasi da, pausoez ideia faktoria martxan jarriko balute legez. Jacques Audiard zuzendaria zen. Aurreko astea Onizepean pasa omen zuten biek hurrengo proiektuaren lehen sekuentziak izkiriartzen. Sarritan etortzen dira Paris-tik ihesi. Kosmopolita unibertsal postmodernoek ahoz aho darabiltzaten pelikulak non eta Zuberoan idatzi direla jakingo balute...


behar duen oro ikasten agertzen da pertsonaia. Hori enpatia iturri agortezina da, dena justifikatzen du, oro bihurtzen du sinesgarri.

Sinesgarritasunak arrakasta bermatzen du?

Pentsa dezakezu esku artean duzunarekin konforme zaudela, lortu zenezakeen sinesgarritasun maila gorena lortu duzula, baina arrakasta ez dago zure esku. Cannes-en *Un Prophète* eta *De Rouille et d'Os*-ekin gertatu zaiguna deskribagaitza da. Bakoitzarekin hiru urtez bueltaka ibili ostean proiektatu baino hiru egun lehenago borobildu genituen, eta azken kredituak agertzerako, prentsa guztiaren ahotan geunden. Halakoetan, beti iruditzen zait harrika hartuko gaituztela, pelikula bat bukatu berrikan ez baitakizu sobera zer egin duzun, eta kritika zorrotzak asko laguntzen dizu zure lana ulertzen, pasarazi nahi izan duzuna pasarazi duzun konprobatzen, eta prozesuan zehar ahan-tzi dituzun hastapeneko oinarritzko ideiekin berriz bat egiten. Ene ustez pelikula batek azken unera arte bizia izan behar baitu, ezin duzu zure proiektua formatu itxi eta bakarrera mugatu. Horrexegatik gustatzen zait errodatze garaian ere idazten segitzea, bizitzaren, eguraldiaren eta teknologiaren istripuei filmean sartzen uztea. Pelikula baten 120-140 sekuentziak idazteko 500 irudikatu dituzu, eta buruan duzun material horri esker segituko du filmak bizitzen. Egoki bizi-arazten baduzu errazagoa da arrakasta erdieste.

Alde handia dago hastapenean gogoan duzun filmetik pantailara iristen denera?

Izugarria, baina biziki atsegina zait hori. Zuzendari batzuekin anitz mintzatzen gara idazten hasi aitzin. Harrigarria da lehen orrialdearen goialdera iristeko behar den denbora. Idazten hasterako asko deliberatu behar da, pautu nagusiak definituak izan. Ezin zara bale-



go eta balitz-ekin ibili. Gero filmak berez egingo du batera edo bestera, baina galduta zaudenero hasierako erabakiak izango dituzu iparorratz. Kutxa zein den argi baduzu argi izanen duzu ideia berriak barnera edo kanpora jaus-ten diren. Horregatik dut gorroto ezertan hasi aitzin zuzendari bat halako aktoreekin film bat egin nahi duela esanez etortzea. Amorratu egiten nau, kikildu. Gurdia idien aitzinetik jar-tzea da, zure burua aktoreen morroi bihurtzea. Nahiago dut pertsonaia pentsatu rolean baino. Rola buruan idaztea bere ziliborrari so dagoen zinema egitea da. Pertsonaia zentra-tzeak lotzen zaitu mundura. Gainera, zure per-tsonaia geruza anitzeko konplexutasunean eraikitzen baduzu, zer antzeztua egongo da, eta aktore onak erraz lortuko dituzu.

Hurrengo urteetan zinemak nondik joko duen antzematea hain erraza balitz...

Zinema dibertsifikatuko da. Gero eta gehiago edo gero eta gutxiago idazten diren filmak egongo dira. Errodatzeko modu berriek arinta-suna ekarriko dute, aurrez egiten den idazketa lanak pisua galduko du muntaia-aren mesedetan. Ia erabat muntaia osatzen diren pelikula arra-kastatsu anitz ikusten ari naiz azkenaldian. Zentzu horretan, eskola zaharrekoa naizelako-an nago. Tradizio zinefilo batetik nator, dramaturgiaren legeak erres-petatu eta barneratuak dituen kas-takoa naiz, baina nork daki, agian hori zaharkituta dago jada. ■



«Lehen, bigarren eta hirugarren mailako minen liga antolatzea anti-terapia da»

Zarauzko postalak. 36ko gerra. Herri hori bera du aztergai liburuak, baina fronte gunerik izan ez zuten herri askok pairatu zuten bidegabekeriaren ispilua ere bada. Hildakoak, iheslariak, ekonomikoki itoak, esklaboak, espetxetik etorri berritan jipoituak, langabeziara kondenatuak, diziplina militarrean hezitakoak, herritik kanporatuak, ezer barkatu ez zutenei barkatu beharrean hazitakoak... Horiek denak duindu ditu Amagoia Gurrutxaga Urangaren ahaleginak. Bildu dituen testigantza mordoa eta garaiko testuingurua fin-fin harilkatu izana, egin duen lan eskergaren seinale ditugu.

| GARBINE UBEDA GOIKOETXEA |

Ezagun da urtetako ahalegina dagoela liburuan. Zein izan zenuen abiapuntua?

Kazetaritzan hasi eta berehala, 1936ko gerrak gurean utzitako arrastoen bristadak ikusten hasi nintzen adin batetik gorako ia elkarrizketatu guztien kontakizunetan, eta gaiaren garrantziaz jabetzen hasi nintzen. Jende edadetuari entzuteko zaletasuna ere badugu. Jon Benitok ere, esaterako, bazuen interesa gaiarekiko, eta 2002ko bukaeran hasi ginen herriko jendeari elkarrizketak egiten. Testigantza liburu bat egitea genuen asmoa, baina asmo hori bazterrera utzi genuen. Aldiro, elkarrizketekin segitu nuen. Eta gaiari buruzko liburuak irensten. Zarauzko

Udalaren enkarguz Euskal Memoria Fundazioak gaiari heldu zionean, liburu egitea proposatu zidaten.

Horrela sartu nintzen bigarren aldiz gerraren gurpil zoroan. Elkarrizketa gehiago egin eta entzun, liburu gehiago irakurri, egunkari zaharrak begiratu, artxibategietan arakatu... eta liburu hiru zatitan banatzea erabaki nuen. Lehen, altxamendu aurreko errepublika urteak; bigarrena, altxamendua gertatu eta frankistak herrira sartu bitartekoak; eta hirugarrena, faxisten menpeko lehen urteak.

Amagoia Gurrutxagak hamar urte pasatsu eman ditu 36ko gerrak Zarautzen izan zituen ondorioak aztertzen. Liburu dagoeneko plazan den arren, puzzlea osatzen jarraitzen du.

Hari nagusiaren ondoan, testu lagungarriak ageri dira. Eta Maritxoren postalak.

Maritxo urteotako elkarrizketatuen memoria osoa da, anonimoki jende askok emandako benetako informazioa zabaltzeko fikzioko bitartekaria, postaletako Zarautzek ezkutatu izan duen Zarautz gordintasunean erakusteko.

Emaizkiguzu liburuaren datuak zifratan.

Dagoeneko aldatzen ari dira. Erreke eta falangistek herria hartu berriko egunetan Zarautzen desagerrarazitako bost pertsona-



EIDER GOENAGA / BERRIA



Zarauzko postalak

36ko gerra

ren izen-abizenak bage-nituen, baita herriko kanposantuan exekutatu zuten miliziano ezezagun baten berri ere, baina toki eta modu berean beste hiru lagun hil zituztela jakin dut gerora. Orioko gainean hildakoak hiru zirela uste nuen, bost ote ziren esan didate duela egun batzuk. Epaiketa sumarioetan hiltzera zigortu zituzten seiren berri jaso dut, horietako bat garrotatu egin zuten. Eta herritik kanpo epaitu gabe exekutaturako zazpirena ere bai. Eta frontean, espetxean edo erbestean hildako 40tik gorakoena ere bai. Eta badakit ez daudela denak. Galtzaileen arteko bajez ari naiz, jakina, irabazleena ondo goratua eta zabaldua izan baitzen frankismo urte guztietan.

“Gure historia kolektiboa Espainiako 1978ko Konstituzioarekin hasi izan balitz bezala jokatzeko dugu, aurreko krimenak, kriminalak eta minak existituko ez balira bezala”

Beste zifra batzuk ematearren: erreketek eta falangistak herrira sartu aurretik Zarauztik alde egin zuten 300dik gora herritarren izen-abizenak, 1937ko otsailaren 13an herritik bidali zituzten 63 emakume eta haurren zerrenda, Francoren kartzela eta esklabo sarean harrapatutako 200 inguru zarauztarren... Esan behar da zerrenda horiek osatzeko lanaren parte handiena gerra galtzaile batzuek duela 35 urte egindakoa dela. Galtzaileen bizipenen nolabaiteko notario akta jaso zuten haiek. Eta zerrenda horretan erantsi beharreko izenak agertzen hasi dira.

Herriak terapia kolektiboa behar duela esan izan duzu. Nola egin liteke hori?

Liburuaren azala eta garaiko postala. Sinatzailea, Maritxo, fikziozko bitartekaria da, anonimoki emandako benetako informazioa zabaltzeko sortua.

Ez dakit, ez bainaiz terapeuta. Dakidan gauza bakarra da herri honek gerra anker bat bizi izan zuela 1936ko uztailaren 18tik aurrera, eta 40 urteko diktadura etorri zela gero. Francok sobera denbora eduki zuen bere menpekoen pentsamendua moldatzeko. Eta kolaboratzaile andana, ez litzateke zaharrez hilko bestela. Francok nazional-katolizismoan zentzaturako haien bilobak eta seme-alabak gara, gutako asko haren hezkuntza sistemaren balioetan haziak eta heziak dira, izango ahal dugu zer-

bait aztertzeko, gure egungo gizartearen ajeak ulertzeko! Gure historia kolektiboa Espainiako 1978ko Konstituzioarekin hasi izan balitz bezala jokatzeko dugu, ordea, aurreko krimenak, kriminalak eta minak existituko ez balira bezala. Minak azaleratzeko, ezagutzeko eta elkarri onartzeko garaia heldu dela errepikatzen ari garen garaiotan ere bai. Erabat inkoherentea da batzuen minak beste batzuenak baino gehiago merezi

duela esatea. Lehen, bigarren eta hirugarren mailako minen liga bat antolatzea, nire ustez, anti-terapia da. Mina areagotzen du.

Zer esaten dizute zarauzterrek, liburua ateraz geroztik?

Denetarik. Askok, bazela garaia. Batzuek, ea zergatik ez dudan halakoren izena jarri. Besteek, kolaborazionisten eta Francoren jazarpen egituretako izen-abizenak jarri gabe ere azal zitekeela orduko giroa. Ezagutzen ez ninduen jende batek barre txikia egiten dit orain kalean, beste batzuek ez dakite ezer liburuari buruz eta, garrantzitsuena dena, informazio gehiago biltzeko ate txiki batzuk ireki zaizkit. Gustuko ez dutenek ez didate ezer esan.

Nolakoa zen Zarautz altxamendua baino lehen? Egizu postala.

Bost mila biztanleren bueltako herria. Neka-zaria, kale baserriz betea baina altzarigintzan espezialdutako industriagatik ere ezaguna. Euskalduna eta kulturzalea, baina eskoletako eratzunaren zigorra bere buruari ematen ziona. Karlisten eta abertzaleen arteko lehia bortitzak markatua, baina integritismoan bat egina. Espainiako elite ekonomiko eta politikoko kideen uda lekua; jauntxoaren menpekoek altxatutako kostako herri.

Lekukotzak biltzen segitzeko webgunea ere zabaldu zenuten. Zertan da?

Webgunea informazioa osatzen segitzeko eta zabaltzeko tresna gisa planteatu dugu. Duela bi aste aurkeztu genuen liburua, pixkanaka joango gara hangoak eta liburuan sartu ezinda geratu zaizkidanen zatiak horra ateratzen.

Duela hamar urte egindako hainbat elkarrizketa luze lantzeko ditut oraindik; aurkezpenaren ondotik egin ditut pare bat elkarrizketa; agiri batzuk jaso ditut eta gehiago etorriko dira. Hau ez da nire ogibidea, lan honi ezin diot nahi nukeen denbora guztia eskaini, baina ahal den neurrian egitea da asmoa.

“Gertatu zenaren puzzlearen ahalik eta piezarik gehien batzeak obsesionatu nau. Sinetsita nago beraien iragana eta neure, geure orainaldia erabat lotuta daudela, iragan horren oinordeko ere sentitzen naiz”

Galtzaileen eta biktimen kasuan argiago dago, baina zein da hainbesteko bidegabekeria entzun eta jaso izanaren konpentsazioa zuretzat? Zein du alde txarra?

Gertatu zenaren puzzlearen ahalik eta piezarik gehien batzeak obsesionatu nau. Sinetsita nago beraien iragana eta neure, geure orainaldia erabat lotuta daudela, iragan horren oinordeko ere sentitzen naiz. Gure etxean bada birraitona karlista bat, bada fusilatu baten biloba, bada abertzalea zela ezkututzen bizi izan zen aititea, bada tiroa aldenik alde buruan jo eta herriko plazan ikusgai utzitako makis gaztearen irudia ahaztu ezinda hazi zen gurasoa... Uste dut guztien zergatiak ulertzeko gogoak ekarri nauela liburu honetara, beste hamaika elkarrizketetara eta irakurketetara eramán nauen modu berean. Terapia osasungarria izan da alde horretatik niretzat, aberasgarria da hainbeste pertsona eta bizipen ezagutzea.

Pieza batzuk betirako galdu direla eta inoiz ez ditugula jasoko onartzeak, berandu ailegatu naizeneko pentsamendua uxatzeak, gure memoria ezabatzeak mekanismoak oraindik ere oso indarrean daudela irensteak, horrek eman dizkit lanak batez ere. Exekutatu baten ilobak ez zekien hil zioten osabaren izenik ere. Nire adinetik beherako zaraiztarrei galdetu, eta ia denek esango dizute herrian ez zela ezer gertatu 36ko gerran eta ondorengo urteetan. Hori da gerra irabazlearen garaipen nagusia: horren kontzientzia ezabatzea.

Iraganaz hainbeste gauza ikasi eta gero, nola ageri zaizu orain zure bizilekua, Zarautz? Zer

balantze egiten duzu gaurko egoeraz, ikuspegi horretatik?

Hondartzako postalarri begira segitzen du, neurri batean; eta kanpotarrei hain harrigarria egiten zaion euskalduntasunak gerra aurreko euskaltzaleen oinordekotza parte bat ere baduela uste dut. Oraingo egoeraren balantzeari buruz, lehen esan dut puzzlea osatzeko ahalegina dela liburu. Puzzle horretan zauri erraldoi bat ageri da, eta bada garaia zauriei garbitzen eta arnas hartzen uzteko. Ezin dugu Franco hil osteko akats bera errepikatu, ezin dira justizia eta egia batzuentzat bakarrik eskatu.

Daukazu esperientzia kontuan hartuta, egingo ote zenuke antzeko lanik beste herriren batean?

Oraintxe bertan, egia esan, ez dut halakorik buruan. Liburuaren azken idazketa, familia eta lana uztartzea oso zail egin zait, eta oraindik neke puntu bat ere badaukat. Egun osoko lanean ari naiz *Berria*-n, webgune bat daukat elikatzeko eta bi ume ere bai. Denbora behar da herri arrotz batean kokatzeko, jende interesgarria identifikatzeko eta gertuko bitartez elkarrizketak lortzeko. Eta denborak urte gorriak baino gehiago balio du lan hauetan, zuzeneko lekuko oso gutxi geratzen delako bizirik eta ahalik eta azkarren egin behar zaizkielako elkarrizketak. Uste dut herri guztietan hasi behar luketela testigantza bilketa lanetan, ahalik eta azkarren. Gero gerokoak. Dagoeneko hasi dira herri askotan, eta hori da bidea. ■



INAKIBEREZIARTUA
Enbalajeak · Biltegiatzea eta Logistika · Zerra eta eraikuntza

25 urte baino gehiago paketatze industrialaren sektorean

Jauregi auzoa, 75 · HERNANI · (Gipuzkoa) · ☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com · mjm@inakibereziartua.com

ogiaren egia

Zatoz eta ezagutu garai batean egiten ziren ogiak, lehengo osagai eta teknikekin

Galparsoro OKINDEGIA

Antzinako ogiaren kabia bihurtu baitugu denda zahar berria

Kale Nagusia 6 (Alde Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 074



DANI BLANCO

**Garbiñe
Biurrun
Mancisidor**



EHUKO
IRAKASLEA,
EPAILEA

Udarako lanak

SEI HILABETE igaro dira Eusko Legebiltzarra eta Jaurlaritza berriak osatu zirenetik. Erakunde hauek herria ordezkatzeko dutenez, herriaren eskaerei erantzun behar diete. Agintariek eta herri ordezkari guztiek badakite zer den herriaren eskaeria: planeta honetatik kanpoko biztanle bat ere berehala ohartuko zen pare bat egun gurekin biziz gero. Jendeak egunero luzatzen ditu bere kezkek, eskaerak eta itxaropenak. Gaur, kezka horiek hiru gai hauei lotuta daude: krisia eta eman zaion irtenbidearen ondoriozko larriena. Pobrezia, bakea eta elkarbizitza indartzea. Burujabetza eta Estatuarekiko lotura edo harremana.

Sei hilabete horietan izan dira hainbat gertaera. Latzena, Jaurlaritzak aurkeztutako aurrekontuak erretiratu behar izatea, inolako babesik jaso ez zuelako Legebiltzarrean. Eta beste batzuk: bake eta elkarbizitzarako ponentzia martxan jarri da hankamotz, PPk, momentuz, parte hartu nahi ez duelako; bertan eta kanpoan Estatuarekin eduki nahi den harremanari buruzko eztabaidak.

Hilabete hauetan porrot bat baino gehiago gertatu da, eta ez bakarrik Jaurlaritzarenak. Denek egin dute porrot herriaren eskaerei oraindik erantzun sendorik eman ez dietelako. Beraz, denek ikasiko zuten

Hiru arlo horietan gertaera horietatik zerbait ikasiko zuten, batzuek zein besteek. Bestela, gureak egin du. Esaera batek dio porrot guztietatik ikasten dela. Hilabete horietan porrot bat baino gehiago gertatu da, eta ez bakarrik Jaurlaritzarenak. Denek egin dute porrot herriaren eskaerei oraindik erantzun sendorik eman ez dietelako. Beraz, denek ikasiko zuten.

Horretarako balio dute azterketek, zenbat ikasi den neurtzeko eta egindako esfortzua baloratzeko. Azterketek, gainera, errepikatzen direnez, aukera berriak emanen dizkigute ikasgaia barneratu dela frogatzeko. Unibertsitatean, Bolonia sistema berriarekin betiko iraileko

azterketak uztailearen hasieran egiten dira eta uda igaro bezain pronto ikasturte berriari ematen zaio hasiera.

Gure ordezkariak Bolonia sistematik kanpo daude oraindik. Oraintxe ari dira ekaineko azterketak egiten: bilerak noiz-nahi akordioetara iristeko hainbat arlotan, datorren 2014rako aurrekontuentzat oinarriak jarri eta irudi berria eman nahian, adibidez.

Baina mundua ez dago geldirik. Bitartean, kanpotik iristen zaizkigu hots berriak. Egia esan, berriak bozeramaileagatik, baina ez edukiagatik, hara non, orain Kontzertu Ekonomikoa bertan behera utzi behar den pribilegio onartezina omen da. Ez dakit —alferkeria sartzen zait horretaz pentsatzerakoan—, baina pribilegio izateaz gain, itun baten alde bat ere bada eta alde hau gabe, beharbada, itun osoa lehertuko edo leherraraziko da.

Bitartean ere, eta hau bada benetan pozgarria, hementxe bertan batzuk ari dira lanean, jo eta ke, irabazi arte, helburu sendoak lortu arte. Jonan Fernandez gai izan da talde anitza eta trinkoa osatzeko Elkarbizitzaren alde lana egiteko. Talde honek, orain arte egindako lanari jarraituz, lehen emaitza eman du eta 1960. eta 2013. urteen arteko giza eskubideen urraketa guztien “argazkia” aurkeztu du, etorkizunari begira, iragana ahaztu gabe eta, batez ere, justizia gauzatzeko gure herri maite honetan.

Hau posible izan da erakundeek bul-tzatuta, baina erakundeetatik kanpo. Orduan, zergatik ez horrelako eskuordetze gehiago beste arlo batzuetan. Gure ordezkariak zuzenean ez badira gai horrelako emaitzak lortzeko, hobe lukete ikasten jarraitzea eta dakitenei lana egiten uztea. Unibertsitatean, Bolonia sistemearekin ere, posible da “Ez aurkeztua” kalifikazioa ematea. Horrela ez da irakasgaia gaitzitzen, baina ez da deialdirik galtzen eta, are gutxiago, denbora eta herriarron ilusioak alferrik botatzen. Ondo prestatuta daudenean, azterketetara aurkeztu eta kito. Baina, horretarako, datozen uda eta ikasturte berria aprobetxatu beharko dute ondo-ondo ikasteko. ■





Oier Araolaza

DANTZARIA ♦



DANI BLANCO

Ez berbazkoak

EUSKARAREN biziberritzeaz eta euskal kulturgintzaz gogoeta mamitsuak egin ditu Sorguneak ikerguneak azken urteotan. Kultur bizitzaren azterketatik abiatu eta euskal kulturgintzaren estrategiak garatzeko oinarriak proposatu ditu. Azterketa eta estrategia, eguneroan kateatuta bizi garenok premiazkoak ditugun bi tresna.

Kulturgintzan hiru kategorია bereizi ditu Sorguneak ikertegiak: euskaraz egiten dena, erdaraz egiten dena, eta hitzik ez darabilena. Euskararen eta euskal kulturaren etorkizuna berbazko euskarazko kulturaren eremuan jokatzeko delat ohartarazi dute. Horrek beharko lukeela lehentasunezko lan-eremua. Bigarren mailan leudeke dantza, ikusizko arteak eta, oro har, ez berbazkoak diren kultur jarduerak.

Kategorizazio hori proposamen bat da, euskal kulturgintzaren soroa goldatu eta ereiten jarraitzeko lur eremua antolatzeke ahalegin bat.

Eztabaidarako gonbidapena da eta poztu nau horrek. Ez dakit erronkari erantzuteko gai izango garen, baina kategorizazioa eta horren ondorioz etorriko diren lehentasunen antolaketa hierarkikoa mahai gainean jarri dira, denon bistara.

Dantzaren txokotik begiratuta, esango nuke, azken hogeita bost urteotan izan dela indarrean kulturgin-

tzaren sailkapen bat. Kategoriak lausoagoak izango ziren akaso, hierarkizazioa ez zen esplizituki aurkeztu, baina praktikan, nabarmena gertatu zaigu ez berbazko kulturgintza ez dela izan lehentasunezko alorra. Dantza bigarren mailako kultur jardueratzat tratatua izan da, oso ongi antzeman dugu hori.

Sorguneak taldearen kategorizazio proposamenak

dantza bigarren maila horretan finkatzea ekar lezake. Dantzazaleontzat irensteko zaila izan daiteke, baina behintzat formulatu egin da eta badaukagu eztabaidatzeko aukera. Okerragoa izan da orain arte bizi izan duguna, agerian planteatu ez, baina praktikan ez izate aintzat hartua.

Euskaratik begiratuta ulertezina zaigu Irlandan gaelikoarekin gertatu dena. Badakite nahi dutenean temati izaten, baina hizkuntzarekin axolagabe jokatu dutela iruditzen zaigu. Badirudi gureaz oso bestelako kategoría antolaketa eta hierarkizazioa egin dutela. Musika eta dantza irlan-

dar kulturgintzaren zutabe eta sinbolo sendoak dira. Hizkuntza galtzen zuten aldi berean mundu osora zabaldu dute beraien ez berbazko eta erdarazko kulturgintza. Gurean hizkuntza nahi eta ezinean, eta musika eta dantza alboratuta. Erakutsi diezaiegun irlandarrei biak batera egin zitezkeela. ■

Sorguneak taldearen kategorizazio proposamenak dantza bigarren maila horretan finkatzea ekar lezake. Dantzazaleontzat irensteko zaila izan daiteke, baina behintzat formulatu egin da eta badaukagu eztabaidatzeko aukera



DANI BLANCO



**Amets
Arzallus**



BERTSOLARIA

La Grande Boucle

ORAIN Bidegoian deitzen zaion Gipuzkoako herri hori gurean beti bi herri izan dira, bata Bidania eta bestea Goiatz. Herri txikiak dira orain, baina mapa zaharretan agertzen omen ziren, pentsa, Joxe Agirrek esaten zigun Bidanian jaio zela izotza. Hori baino dokumentatuago dago garai batean Bidanian egiten zirela Gipuzkoako Batzar Orokorrak, Usarraga base-riko zelaietan, hura izan nonbait Gipuzkoako epizentroa. Baina goiaztarrak ere ez ziren zilborrik gabe jaio, eta Goiatz omen da Gipuzkoako herririk altuena, hala dio gure aitak. Elgetarren batek kon-

tra egin izan dit inoiz, hura omen dela garaiena. Bakoitzak bere astoari arre. Eta nik biei barre. Aita haurra zela Goiatz Bidanietan esaten omen zen pertsona batek frantsesez eta bizikletan ibiltzen jakin ezker ez zeukala munduan inora joateko beldurrik. Aste honetan hasiko da Frantziako Tourra, ehungarrena. Eta ziklismoaren aspaldiko martxa ikusita, hainbeste sasi mediku eta sasi kazetari, apustu egingo nuke txirrindulari bat baino gehiago beldurrez joango dela Korsikara. ■





Julio Villanueva

♦ MUGITU!KO KIDEA

Merenge frantsesa Nafarroako AHT proiektua baino sendoagoa?

DUELA GUTXI Nafarroako gobernuburu den Yolanda Barcina andereak holako “perla” bitxia bota zuen: “Historiak Leitzarango autobidea, Itoizko urtegia, Nafarroako ubidea, AHT (Abiadura Handiko Trena) eta beste azpiegitura handien aurkariak barregarri utziko ditu”.

Castejon eta Arrizabalaga arteko AHT iragarri ondoren ikusi beharko da historiak bera nola uzten duen. Izan ere, 60 km eskaseko AHTren tarte erakitzea, hurrenez hurren 4.316 eta 177 biztanle dituzten eta geltokirik gabe geldituko diren bi herriak lotzeko ez dirudi oso erabaki arrazoizkoa denik, ezta euren ikusmolde garapen zaleetan ere, are gehiago defizit politikak lupaz begiratzen diren garaiotan. Teoriaz behintzat, AHTren bultzatzailerik kilometro askotara dauden hirigune populatuak lotzeko garraibide egokiena AHT dela azpimarratzen dute. Ez dirudi, antza, kasu honetan bi baldintza horiek ematen direnik.

Shakespearek behin esan zuen Nafarroak mundu osoa harrituko zuela. Pentsatzen jarrita, idazle ona izateaz gain, igarle oso ona ere bazela begitantzen zait. Idazle ingelesak, segur aski, *Errekorren Guinness Liburuan* munduko AHT linearik motzena izanen den Foru Txutxu-AHT linea hau aurreikusi zuen eta.

Estatuak Euskal Yrekiko eta Zaragozarako lotuneak abiadura handian baztertu ondoren nafar korridorea inoizko krisirik gorriena jasaten ari da: AHTren aldeko alderdi politikoak ez dira ados jartzen, inprobisazioa eta lardaskeria inoiz baino ageriago gelditzen ari da, proiektuaren funsgabetasuna eta ahuleziak nabarmenak dira eta jendeak adarra jotzen ari zaiolako sentsazioa gero eta barneratuagoa du. Nahiz eta aldekoak hirugarren haria behin behineko irtenbidea dela eta krisia gainditutakoan nafar korridore guztia abiadura handian izanen dela behin eta berriro errepikatu, inork ez du sinesten, ezta eurek ere. AHT Nafarroan etorkizunik gabeko proiektua da.

Duela urte eta erdi Yolanda Barcinak Mugituleren tartak jaso zituen geroztik, maldan beheara joan zaio dena: UPN bakarrik gelditu da Gober-

nuan, bere alderdiaren barruan ere inoiz baino arerio gehiago du, CANeko afera lehertu zaio, eta AHTren proiektua Nafarroan gero eta ahulago dago.

Tartakadak jaso ondoren esan zuen AHT Nafarroara azkarrago irits zedin lan eginen zutela, baina errealitatea egoskorra da eta muzin egin dio. Are gehiago, proiektuarekin segituz gero, CAN bezalako beste arazo iturri bat zabalduko du. Zeren, nola justifika daiteke tamainako lardaskeria? Akaso erakuntza enprekin dena hitzartuta dago esleipenak egin aurretik eta honez gero komisioak kobratuta dituzte?

Nafarroako faraoi andereak, *tartalariak* bere porrotaren errudun baikinan, geure buruak nahi ditu zilarrezko erretiluan. Horregatik fiskalak baino

*Shakespearek behin esan zuen
Nafarroak mundu osoa harrituko zuela.
Pentsatzen jarrita, idazle ona izateaz gain,
igarle oso ona ere bazela begitantzen zait.
Idazle ingelesak, segur aski, Errekorren
Guinness Liburuan munduko AHT linearik
motzena izanen den Foru Txutxu-AHT
linea hau aurreikusi zuen eta*

zigor handiagoak eskatzen ditu: sei urteko kartzela zigorra eta 3.600 € hiru auzipeturentzat eta laugarrenarentzat, herri txiki bateko zinegotzi izateagatik, 9 urte eta 5.400 €. Gainera, Auzitegi Nazionalan lagun handiak dituen gero, gure helegitea errefusatzeari lortu du. Beraz, itxura guztien arabera, bertan epaituak izanen gara.

Nor eseriko da lehenago akusatuen aulkian, bera ala gu? Justizia ezagututa, gu izanen garela nago. Hala ere, gauzek horrela segituz gero, berak baino sostengu sozial handiagoa izanen dugulakoan ere banago.

Oharra: Julio Villanueva TAV-takadengatik auzipetutako Mugituko kideetako bat da. ■



Iratxe Esnaola

♦ IDAZLEA



DANI BLANCO

Le swing

IDAZTEN ARI naizelarik lesbiana hitza ez dut aski emakumeengana desioa sentitzen duen emakumea izendatzeko, Lesbos uhartetik jasotako ondarea testuigurura egokitzen ez bazait, edo deskribatu beharrekoak bestelako ñabardurak behar baditu. Euskal hiztegi hainbatek ez du lesbiana hitza jasotzen (Azkue, Mugica...). Egungo Euskararen Hiztegiak lesbiana jasotzen du eta haren ondoan lesbianismo, lesbiar, lesbiko eta lesbofobia. Sinonimoen bila jo eta ezer berririk gabe itzuli naiz. Hiztegieta material gehiegi ez dugu, eta beharbada, nire aurkitu nahi eta ezinak esplikatu du sukurturik eduki nauen hanka sartzea. Hiztegi hiztegi nabilela, Ibon Sarasolaren 2007ko *Euskal Hiztegi* argia ikusi uste dut. Bertan lesbianismo eta lesbiar jasoak ditu. *Lesbiar*: Emakumeen arteko homosexualitateari dagokiona.

Lesuin. Ik. Pezoi. Hitz berria da *lesuin* niretzat.

Urduri bilatu dut. *Pezoi: Hesia. Elbuiy Euskara-Gaztelania* hiztegi noa estu. *Pezoi: 1 – Seto-valla. 2 – Trinchera, fosa, zanja.* Pausoz pauso joan nadin. Nolz lesbiana batekin senidetu hesia? Elkartasunez mintzo al zait hiztegi? *Trinchera: Lubaki.*

Bollerok heteropatriarkatuaren aurkako Lehen Mundu Gerrara animatzen gaitu? *Fosa: Hobi.* Lurpean eta zerraldo hobe gaudela! *Zanja: Zanga.* Underground hutsak gara, ala? Larriturik nabil lagun batek ikusarazi didan arte nire akatsa. *Lesuin* hiztegi lesbien osteko sarrera da, ez haren definitzailea. Letra lodi gabe idatzia badago forma okerra edo euskara batuan saihestu beharrekoa delako da eta hobetsitako pezoi azpimarratzen da.


Eskerrak, *Gene-ro-arietak. Feminismoaren subjektuak* izenburuko liburua plazaratuko duen laster Edo! argitaletxeak. Bertan, Amaia Alvarez Uriak

lesbiana hitzaren sarrera bat apailatu du eta hitzaren hainbat euskal ordain bildu. Aitor Aranaren *Gay Hiztegia* (2005) ezagunetik atereak dira hurrengoak: andrekarria, neskakoia, bilitisen alaba /ahizpa, emakumetxoa, aluzalea, motxinjalea, piperropila, potxonza-lea, sorgina, ulertua, ulertzailea, lamia, joxe-joxepa, marimutila, mariurkulu, neskamutila eta emarkia. Itxaro Bordaren literatur lanetatik erreskatatuak hauek: alharia, emekoi, andrakoi, emaztekoi. “Euskaraz lesbiana edo bollera hitzaren ordain hedaturik ez dagoenez, bi hitz horiek erabili ohi dira, erdal maileguak; baina badaude hainbat herri eta hiritan kalean erabiltzen hasi diren hitz sortu berriak: soropila edo txirlajalia, esaterako” aipatzen du Alvarez Uriak.

Kuku da beste hitz bat eta belarriotara iritsi ez diren eta biltzea interesgarri genituzkeen gehiago, irainak ere bai tartean, kultura lesbierreko hainbat kidek gure aurka jaurtitako hitz iraingarriak bereganatu baititugu geurori izendatzeko (bollera, tortillera), irainaren esanahia ezeztatuz, harrotasunez gureganatuz.

Bestalde, beti asma ditzakegu hitz berriak, erabilerak. Sarasolak ondo esana da erabiltzailea dela azken epailea hitz baten onarpen edo bazterketan. Bada, hala gertatu zaio erabiltzaile honi. Pottorzale batekin afaltzeraren irten aurretik axotaz *lesuin* idatzi dut ezker eskuan ahantz ez dezadan. Ogitartekoa jaten ari gara saltzaile ibiltari senegaldarra mahairatu zaigunean. Eskuko hitzari so zer den jakin nahi izan du eta lesbiana dela diotsot. “Lesbiana?”. Espeziekoa naitzela argitu diot. “Baina zu ez zara gizona”, hark arropostu. Eta laster: “Nola arraio egiten du zue?”.

Erantzuna boteprontoan: “*Comme on danse le swing*”. Fin! ■



Antton Olariaga

Lurraldeak

Zonaldeak

Gomendioak

Jarri zure
bannerra

Gehitu
herri bat

Proposatu
zerbait

Euskal Herrian ihesi

Osa dezagun guztion artean geure gida sarean

Non jan dezaket Bermeon? Zer ikusi beharko nuke Maulen?
Non egin dezaket lo Tuteran? Bastidarrek bertara joateko
egun berezirik gomendatzen al dute?

Hurbil diezaiogun elkarri Euskal Herria



Euskal Herriko lehen turismo webgune interaktiboa

Herrietako informazio praktikoa, mapak, bideoak, ARGIAko Ihesi
erreportajeak, erabiltzaileen gomendioak, zeure proposamenak egiteko
lekua, zure iragarkia 0,50 €-tik aurrera...

ihesi.com



argia
proiektua

«Sekulako ikasgaia da idazlearen egoari gaina hartzea»

Kulturgintzaren lehen lerroan ikusten dugu aspaldi honetan, arrazoi ugari medio. Tartean, Zertarako Hegoak, Berriaren ekimenez sortutako antzezlanak, haren aurretik estreinatutako *Poza, Elkartasun basatia* (Susa) poema liburua, honen inguruko errezitaldiak...

| GARBINE UBEDA GOIKOETXEA |

Argazkiak: J.A. Areta Goñi *Juxe*



diren ekitaldiei. Ahalik eta gehien erregistratzen saiatzen gara, etorkizunerako eta transmisiorako gorde-ta daudela bermatzen, kultur memoria sustatzen.

Zerk eraman zintuen poesiara? Orduko helburuek horretan al diraute?

Betidanik izan naiz irakurle amorratua. Gaztetxoa nintzela, mugimendu handia zegoen fanzineen inguruan eta horretan murgildu nintzen neu ere, Oreretan. Horri esker jende asko ezagutu nuen, eta gauzatoak egiten hasi ginen geu ere. Mikelazulo kultur elkarteak ere orduan zabaldu zuten eta haiek animatuta hasi ginen fanzinea bertan saltzen, lehen errezitaldiak eskaintzen. Irakurketan sakonago jotzen

hasi nintzen, beste jende batekin kolaborazioak egiten eta antzerkira gerturatzen. Tes-tuinguru horretan esperimentatzen hasi ginen, eta egia esan, ordutik ez da amaitu.

Poesiatik antzerkira, beraz. Alderantziz zelakoan.

Garai hartan ez nuen nire burua imajinatu ere egiten antzerkian. Oreretak lotura estua izan du beti antzerkiarekin. Ur taldearekin genuen harreman handiena. Gero, Oreretatik kanpo egindako lehen emanaldiak heldu ziren, sekulako abentura ziren guretzat. Gauza asko egin genituen, zenbaitetan ausarkeriaz, baina hura izan genuen eskola. Urteak iragan ahala, egiten genuenaren kontzientzia hartu genuen, beste forma batzuk bilatzeari eta sakontzeari ekin genion. Lehen urte haiek eztanda izan ziren eta Orereta ere borborka ari zen.

Literaturako eta kultur munduko jendeen artean zubi lana egiteko sortu zen, duela hiru urte, Hitzen Uberan. Zure lantokia duzu. Zer nolako panorama duzue?

Krisia dela eta, inoiz ez dakigu zer gertatuko den. EIEri estrategikoa iruditu zitzaizolako abiatu zen ekimen hau, kazetari gisa hasi ginenontzat ere berria zen, eta oraindik erronka izaten jarraitzen duela esango nuke, sarean dagoen mugimendua etengabe aldatzen baitoa. Oraindik bide luzea dago egiteko. Kontzeptu asko dugu geureganatzeko, kultura librearen inguruko gogoetari dagokionez. Helburuen artean bazen euskaraz sortzen den kulturari, eta zehazki literaturari, zabalkunderrako zirrikituak ematea. Horretan dihardugu.

Bestalde, arreta berezia jartzen diegu komunikabideetan leku faltaz baztertzen

“Poesiaren eta antzerkiaren arteko muga lausotu egin zait eta onartu egin dut, onartu eta agertu”.



Orduko eztanda horrek segitzen al du zuengan?

Bai, baina beste modu batera. Etapa asko egon dira, gauza asko probatu ditugu, eta orain beste momentu batean gaude, antzerkiari lotuago gaude, baina egiteko moduak, eta urteotan sortzen joan den estetika hor daude, ez agian hain modu inprobisatuan, hain modu eroan, baina orduan hartutako eskolak hor jarraitzen du. Urteotan josi dugun harreman sareak ere hor jarraitzen du, talde dezente sortu da harreman hauek, eta bakoitzak bere estetika bilatu duen arren, etengabe kolaboratzen dugu. Sareak babesa ematen digu proiektu asko gauzatzera. Bestela lortuko ez genukeena lortzen laguntzen digu. Elkar ezagutza humano eta artistikoa dugu, badakigu zer zeini eskatu.

Eskuen sustraiak poema liburuarekin alderatuta, *Elkartasun basatia* gordinagoa, kontraesan handiagokoa dela esan zuen Igor Estankonak ARGIAN. Zer aldatu da handik hona?

Eskuen sustraiak idatzi nuenean trantsizio momentuan nengo, nire inguruan gauza asko ari ziren aldatzen, Metroko adroka esaterako, orduan sortu zen. Etapa baten nolabaitko balantzea izan zen eta jendearekin eginiko erreferentziak josita dago. Urte luzez ezagututako jende asko ageri da, haiek eman didaten guztia plazaratzeko beharra sentitzen bai-

“Urteotan josi dugun harreman sareak babesa ematen digu proiektu asko gauzatzera. Bestela lortuko ez genukeena lortzen laguntzen digu”

nuen. Zentzu horretan, barrutik begiratzen nuen, baina ingurura ere bai. Lehen liburu batek izan ditzakeen ajeak zituen behar bada, gai aldetik oso zabala, gauza asko sartu nahia.

Elkartasun basatia libreago sentitzen nintzen, ez dago oso bestela idatzita, halere. *Eskuen sustraiak* eta gero sortuz joan dira testuok, banaka, momentuka atera dira. Antolatze lanetan hasi nintzen konturatu nintzen bazirela ideia batzuk zeintzuekin oso erraz identifikatzen nintzen, eta zentzu horretan hariak argiagoak dira nire baitan. Ez dakit irakurleak zer jasoko duen, baina kontraste hauek edo kontraesan horiek bideratuagoak daudela esango nuke.

Zure poesia antzerkiak bustita dator, eta zure antzerkia poesiaz, bata eta bestea elkarrekin doaz zurekin. Letrez ari garela, zer du antzerkiak poesia hutsak ematen ez dizunik?

Lotura estuak ikusi ditut, eta gustatu egiten zait lotura horiek bilatzea eta ikertzea. Garai batean bereizten saiatzen nintzen. *Elkartasun Basatia*, finean, zera egin dut, erlaxatu eta gauza horiek niregan oso lotuta doazela onartu. Hala ere, poesia liburu bat egiten saiatu naiz, ez antzerki liburu bat.

Normalean teatroan interesatzen zaizkidan egileek ere loturak dituzte poesiarekin. Sorkuntza modu garaikideetan, lotura han-

diagoa dute poesiarekin narratibarekin baino. Eta bide hori interesatzen zait, muga lausotzen joan zait eta onartu egin dut, onartu eta agertu.

Zure poemak partiturak direla diozu. Jendeak interpreta ditzan daudela horrela sortuta. Zerrek ere ez dituzu berdin eskainiko. Zer bilatzen duzu, nondik nora hasten zara interpretatzen publikoaren aurrean?

Garai batean antzerkirako istorioak idazten hasi nintzen neu ere. Kontraturatu nintzen hartzen ari ginen bidean pertsonaiek eta egoerek bidea ixten ziotela antzezleari. Gure lan moldean aktoreak ere sortu behar du. Hitza garrantzitsua da baina elementu bat besterik ez da. Pisu handia du, jakina, baina irekia izan behar du, sormenerako aukera eman behar dio interpreteari. Zentzu honetan, poesiak bidea errazten du, ez duzulako ixten pertsonaia horrelakoa da edo egoera honetan hau gertatzen da esanez. Aktorearen esku uzten da. Hortik etorri zitzaidan partituraren ideia.

Partitura kutsu hori errezitatean errazago ikusten da, modu askotara egin litekeelako. Oholtzan eman litezkeen elementu asko ezin dira paperean jaso, hainbat ahotsez emateko aukera, erritmoekin jolastea, publikoaren aldartea detektatzea eta horri erantzutea... Azken antzezlan guztiak modu horretan idatzi ditut, pertsonaiarik gabe, argumentu argirik gabe, gaiak eta testuak planteatuz.

Poesiak askatasuna eman dio, beraz, interpretari, oholtzan, antzerkian.

Testua berdin presente dago, baina aktoreek oso beraia sentitzen dute era berean, hortik sortzen den dramaturgia paperean ez zegoen arren, testua hor dago. Oso interesgarria iruditzen zait hori.

Metrokoadroka kolektiboa dela diozue, eta sormen laborategia ere badela. Zein da hitz horien bidez nabarmendu nahi duzuen gakoa?

Geurea definitu nahian denbora eman dugulako heldu dira hitz horiek, eta lehenagotik baita beste batzuk ere. Modu zehatzik ez genuen aurkitzen zer eta nola egin nahi dugun azaltzeko. Beti esan ohi dugunez, geurea nolabaiteko kaos antolatua da. Funtzionatzeko ohiko moduak ez dira guretzat baliagarriak, taldearen kontzeptua, konpainia, enpresarena, eta eredu bila aritu izan gara beti. Bilaketa horretan, azkenean proiektuek

eman digute bidea. Jende multzo handia gara, zenbait diziplinatakoak, eta lehenik eta behin, sare bat osatzen dugu elkarrekin, eta bata bestea gabe ez litzateke existituko, sareak ematen baitugu babesa proiektu bakoitzeko. Ez dugu idatzizko kontraturik, inplizitoa da dena, baina era berean oso agerikoa, oso erreala.

Gutako batek pintura erakusketa egin nahi badu, badaki nahi izanez gero idazten duen

norbaite laguntza izan dezakeela, edo eszenografian ari denarengana jo dezakeela konfiantza osoz. Harreman hori onartua den heinean sekulako babesa eta lasaitasuna da proiektuari aurre egiteko eta zabaltzeko orduan. Funtzionatzeko modu hori itzela da, bai Metrokoadrokaren barruan, 15-20 lagun artean, bai eta inguruko taldeetan ere, azkenean kontzeptu hori zabaldu egiten baita.

Bestalde, gure sorkuntza prozesuak kolektiboak izan ohi dira, gutxitan gertatu da norbaitek zuzentzea edo markatzea. Prozesuak beti negoziatuak izaten dira. Bidean kodeak eta moduak aurkitu ditugu apurka talde lanerako, eta hori sekulako altxorra da, norberak imajinatu duena baino askoz urrunago heltzen direlako

proiektuak horrela. Sakontasun handiagoa hartzen dute. Gainera, proiektua plazaratzen denean denok sentitzen dugu proiektua oso gurea, denon ahotsa dagoelako hor, bakoitzak bere eremuan egin duelako ekarpena. Errespetua dago bestearen lanarekiko baina era berean talkak bilatu behar dira etengabe. Talka horietatik sortzen dira lanak. Ezusteko formak hartzen dituzte.

Negoizatzak galera ere badakar.

Galtzen da, jakina, baina oso argi geratzen da taldearen onerako dela. Beti badira bakarkako lanak bestelako beharrak asetzeko. Idazlearen kasuan, idaztea bakarkako lana da, talderako aritzen naizenean ere bakarka ari naiz, pintorea bezala. Gauzak asko aldatzen dira kode eta negoziazio hori onartzen duzunean, idazketa beste modu batean bizi duzu, eragina onartzen duzu, eta berridatzi behar izatea ere bai, elkarren zerbitzurako ari garelako hor. Sekulako ikasgaia da idazlearen egoari gaina hartzea lortzen baduzu. Autorearen figurarekin egiten du talka horrek. Hitzari oholtzan kalitatea eman nahi bazaio, beste elementu batzuk aintzat hartu behar dira.



“Gure lan moldean aktoreak ere sortu behar du. Hitza garrantzitsua da, pisu handia du, baina irekia izan behar du, sormenerako aukera eman behar dio interpreteari”



“Idealena, leku aproposan modu intentsiboan lan egiteko aukera izatea da, talde osoa murgiltzen garelako sorkuntzan, eta errazago delako material berriak sortzea. Hori da gure erronka gaur egun: lan prozesu duinak edukitzeko baldintzak lortzea”.

Nondik abiatzen zarete sortzerakoan? Zein da prozesua?

Lan bakoitza bakana da. Nahiz eta filosofia beretik abiatu, proiektu bakoitzak bere prozesua du, bakoitzak bere ezaugarriak dituelako. Jendea ere aldatzen da batetik bestera. *Zertarako Hegoak*-en eta *Pozan*, esaterako, kontzeptu bat planteatu nuen, eta testu solteak. Horiek

hartu eta inprobisazioaren bidez, talde osoa sartzen da, material bat sortzen da, testuak nork bere egiten ditu, zenbait baztertu egiten dira, edo berridatzi, eta gero dramaturgia aurkitzen zaio. Kasu bakoitzak bere bidea du jendea ere ez delako bera batean eta bestean.

Pozan diziplinen arteko dialogoa bilatu genuen, eta autofikzioa, dramaturgia horixe ikusi genion, nire testuetan hasieran ez zegoena. *Zertarako Hegoak*-en absurdotik jo dugu gehiago, eta teatro fisikotik. Hor bada istorio narratiboagoa, baina inprobisazioaren bitartez heldu zen.

Idealena, leku aproposan modu intentsiboan lan egiteko aukera izatea da, talde osoa murgiltzen garelako sorkuntzan, eta errazago delako material berriak sortzea. Hori da gure erronka gaur egun: lan prozesu duinak edukitzeko baldintzak lortzea. *Pozan* izan genuen aukera hori, beka bati esker, Bilbao Escenan izan baiginen 15 egunez. *Azalan* ere astebe- bez izan ginen Oreretako Niessen. *Zertarako Hegoak*-en ez zitzaigun hasieran aukera suertatu, baina gero bai. Beste zenbait herrialdetan bada erresidentzia artistikoetarako ohitura. Hemen ez dugu hainbestekoa, gero eta gehiago entzuten den arren. Prozesu bakoitza abentura bat da.

Nola ikusten duzu antzerkigintza?

Oso panorama interesgarria dugu, aukeraz beteriko momentua bizi dugu, jende asko ari delako beste lan dinamika batzuk probatzen, eta horietarik zenbait, euskara hutsean. Gainera, harreman sareak sendotzen ari dira, kolaborazioak ere badira, eta erreferentziak, Eztena bezala, edo zenbait leku Harri Xuri, Pabiloi 6, La Mostrenka edo Azala bezala. Hor badira egituratu gabeko sareak edo sasi-sareak, Lipusen hitzak erabilia. Horien garrantzia itzela da. Arlo guztietan bezala, kontraesanak eta ezikusiak egon daitezke, baina bada elkartasunerako joera bat antzerkian, hain zuzen horrexegatik, ohituta gaudelako taldean lan egiten eta negoziatzen. Azken urteetan oso gauza interesgarriak gertatzen ari dira maila horretan, zenbait kasutan, baita programatzaileen aldetik ere. Eszenan planteatu izan ditugu sortzaileen eta programatzaileen arteko eztabaida foroak. Gainera, badira Zubi bezalako ekimenak. Krisi egoeraren aitzakiaren gainetik jendea elkartuta, eragileen arteko komunikazioa baldin badago, gauza asko egin daitezke. Horrelako ekimenek erakusten dute harreman horiek ez direla zertan sortzaileen artean bakarrik eman behar, gerta daitezkeela erakundeekin ere. Udaletxe eta programatzaile dezente dago hor inplikaturatuta. ■





Helduen literatura | ANTZERKIA

Eta Karmele?
Samara Velte
Edo!, 2013

Godoten soineko urratua

EDO! argitaletxe jaioberriak argitaratu dituen lau lanetako bat da *Eta Karmele?*. Zarautzen estreinatu zutenetik 5 urtera kaleratu dute. Samara Veltek idatzi zuen Ainhoa Alberdik eta Iraia Eliasek antzezteko, eta orain arte 80 aldiz taularatu dute. Antzerki absurdoaren generoan kokatzen da eta Samuel Becketten *En attendant Godot* (1952) antzezlanean oinarrituta dago. Bertan bi gizon daude zuhaitz baten ondoan Godoten zain, eta bitartean berba egiten dute. *Eta Karmele?* lanean ere bi emakume daude Karmeleren zain, kotxe baten inguruan. Bi antzezlanetan agertzen dira jendar-teari eta botere harremanei buruzko solasaldiak, errepikapenak, umorea eta komunikazio-inkomunikazio egoerak.

Baina zein da diferentzia azpimarragarriena? Samara Veltek Becketten lana transgenerizatu duela. Zain daudenak eta heltzen ez dena emakume bihurtu ditu. Zer gerta daiteke Godoti gona jantzita? Nolako aldaketak pairatuko dituzte pertsonaiek, tramak edo jorratutako gaiek? Becketten lanean solaskideen bizitzaren zertzeladak ematen zaizkigu eta Godot da haien arteko lotura. Velteren lanean ordea Karmeleren berri dugu, bi pertsonaiek berarekin bizitakoa eta partekatutakoa dute hizpide eta lotura. Bi gizonek klase sisteman eta aberastasunaren banaketan mugetan bizi dira, kultura estatubatuar neoliberean 'galtzaileak' izango lirateke. Bi emakumeak... emakume dira. Eta horrek baldintzatzen ditu haien gorputzak, jokaerak eta bizipenak. Oso kontziente dira haien genero identitateaz: *Zer gaitun gu? A! Bazakinat! Emakumeak gaitun!* (noka hitz egiteak ere izaera hori agerian uzten du etengabe). Edertasunaren kanonarekiko kezka agertzen da (*Ez bago polita, bi polita haiz*), ahul eta pasiboaren rola (*Beldur naun! Eta nork babestuko hau?*), edo emozioekiko joera eta haragiztatutako subjektua (*Gure historia emozioak pizteko gai diren gorputzez gabetua zagon... Zergatik ez zuen esaten [Deskartesek] 'maite dut, beraz, banaiz' edo 'ukitzen dut, beraz, banaiz'*).

Baina osagai guztien artean gailentzen dena emakumeengako egiturazko biolentzia da. Karmele bere erasotzailearekin bizi da, (*Bizi ez, Karmele bere etxean hil egiten dun*). Virginie Despentesek Teoria *King Kong* (2007) lanean Camille Plagiak esandakoa aipatzen du: "bortxaketa emakume izatearekin batera doan arrisku sailhestezina da etxetik atera eta aske ibili nahi baduzu". Karmeleren kasuan bortxakeria etxean dago, baina edonon topa daiteke, (berriki Adak eta Jennyk gimnasioan topatu bezala). *Eta Karmele?* Zain ditu lagunak, kalean, kotxearen ondoan.. ■

Amaia Alvarez Uria



Iniziazioko nobela

HISTORIAKO istorio honek Miarritzeko La Négresse auzoan du abiapuntu. Bitxia egin zait tokia: Iturralde lehengusu Ramuntchorekin promenatzen doanean, bertako auzo errusiarrak seinalatu dio honek. Neroni La Négresse Miarritzeko *banlieue* auzoa begitandu zait betidanik. Inpresio bat besterik ez da.

Tomas Mikeles-torena erretoreak Esteban Urtun-saustegi eta Jeanne Munitxaren bitartez jaso zuen istorioa, eta osaba Martinek transmititu dio Joxemari Iturralde-ri. Esteban eta Jeanne, Iparraldeko euskaldunak, nobelako pertsonaia dira biak ala biak. Prota-



Rasputin eta San Petersburgoko gauak
Joxemari Iturralde
Elkar, 2013

gonistak, berriz, Rasputin –Gregori Efimovitz–, Alexandra tsarina –Nikolas II. tsarraren andrea–, Alexis eta Yussupov printzeak, besteak beste.

Nobela historikoa izanagatik, fikzio nobela da neurri handienez. Erotikotik ere badu amiñi bat. Idazle tolosarrak Errusiako azken tsarraren azken egunak hala nola boltxebikeen iraultzaren hastapena kontatzen ditu –neurri bateko dokumentazio lana agerikoa da–, eta historia fikziora ekartzeko egin duen idazketa ere nabari da. Nobelaren erotikotasuna dena den, mugatua da oso.

Horratx beste inpresio bitxi bat: Rasputinen behin-behineko dohainak bere zakil zantarrari zor dizkio, bere mistikari baino. Tira, historiaren motorra botereak –diruak– eta sexuak atxikitzen dute martxan, mistikak ere bai prefosta. Hau gezurrezkoa da baina, edo lehen biak errealagoak behintzat.

Rasputin eta San Petersburgoko gauak iniziazioko nobelatzen jotzen dut neronek. Trabarik gabeko hizkuntza darabil tolosarrak, di-da batean hasi eta amaitzeko irakurketa. ■

Mikel Asurmendi





Perkins
Norman

Gaztelupeko Hotsak,
2013

Zinema zale rockeroak giro eta esperimentazioan sakontzen

POZGARRIA da noizbehinka genero itxietatik kanpo, aurreiritzirik gabe eta modei uko eginez, barrenera soilik begiratuta, Euskal Herriko rockari, erritmo biziei eta amorruari buelta erdia ematea. Beraien krimenak Norman izenpean egiten dituzten eibartarrek –ondarrutar eta sorluzetar bana arduratzen da biktimak lotzeaz– disfrutatzea dute helburu bakarra. 2007an Eibarreko Legarreko lokaletan Electric Dolls punk-rock taldean aritutako Alex eta Kobi; The Gominols eta Skandalu Publikun gaizkile gisa aritu zen Kepa; eta oraindik fitxa polizialik ez duen Beñat elkarrekin gauaren erdian irteten hasi ziren inork zehatz ez dakien lekuetara. Baina bat-batean, 2008an, Danbaka musika lehiaketako finalera heldu ziren. Eta 2009an Bilbo Hiria lehiaketarako ere sailkatu ziren. Hori guztia, inongo lanik kaleratu gabe zirela. Zertan demontre ibiltzen dira gauetan?

Gaizkile hauek musika asko eta oso anitza entzuten dute. Ezin dute ezkutatu nolabaiteko iragan hardcorea dutela, melodiaren zaleak direla eta euskal musika ere apreziatzen dakitela; ezohiko ezau-garriak hirurak, eta guztiak batuta, are eta bereziagoa emaitza. Beraien lehenengo lana (*Norman*, Gaztelupeko Hotsak, 2009) haize fresko bezala definitu genezake, baina kantu guztiek *Psicosis* filma dute oinarri. Garapen eta erritmo aldaketa handiko kantuak dira, psikodelia eta giro oso ilunez josiak, eta aldi berean oso melodikoak. Izan ere, askotan beraien burua balazta gabe maldan behera bota izan dute punk-rock ilun, melodiko eta skizoaren

bila. Korapilatsuegiak punk-rock zaleentzat eta rockeroegiak esperimentazioaren jarraitzaileentzat.

Kontzertu batzuk –gutxi– eman ostean, Legarreko lokalean berriro ezkutatu eta jende ondratuak lo egiten duen bitartean abestiak idazteari ekin eta gaizkide duten Ander Barriusoren laguntzarekin grabatzen hasi ziren. Sasoi hartan Kobi bateria jotzaileak taldea utzi zuen eta Kaosaren erasoak taldeko Peñalbak ordezkatu zuen. Beñaten esperimentazio nahiak iturburu handiagoa aurkitu zuen, iraganean azal azpian bizi zen 50eko hamarkadako rocka ia alboratu eta Peñalbak kolpe are eta kaotikoagoa, are eta bortitzagoa, eman dio lanari.

Perkins diskoak (Biniloan plazaratu da, CDa barruan opari duela) *Psicosis*-en erruz jaio zenari jarraipena ematen dio eta B serian eta zine beltzean inspiratuta, erregistro, sonoritate eta giro gehiagorekin jolasten dute ia mugarik gabe. Era berean, musikari moduan hazi egin dira, Beñat abeslariak lan itzela egin du eta beraien musikak transmititzen duen ezinegona –oso talde gutxik lortzen dutena– areagotu egin da. Bada oraindik Dead Kennedys, Zen Guerrilla, Mike Watt eta psikodeliatik edaten duen punk-rock skizo delakorik, baina giro desberdinak lortzearen bidean Union Carbide Productions, Fantomas, Gun Club, perkusio afrikarra, theremina, Zirkoa eta AmRep zigiluko taldeak ere bidelagun izan dituzte. Lan itzela! ■

Iker Barandiaran




1 irakurri

2 hautatu

3 erabili

4 eman iritzia



Euskal Herria ezagutuz

HAZPARNE (LAPURDI)

Haritzetan barrena

Garruze, Mehaine eta Donoztirin gaindi, gauaren erdian SigurRos taldea entzunez harilkatu laurogei bihurtugetarik landa pozik ikusten ditugu Hazparneko argiak. Hazparnek ere lasai dirudi. Merkatu plaza. Aldez alde luzatzen zaion karrika kasik bakarra eta elizaren malda. Misterio bat bezalako zerbait bada ordu txiki horietan. Lapurdiko hiri gotorrak alta badaki bidaiaria erakartzen.

| ITXARO BORDA |

Argazkiak: Gaizka Iroz

1660. URTEAN aurkitu zen Diokletian erromatar enperadorearen denboran Hazparne Novempopulania ezagunaren hiriburu gisa finkatzen zuen harri zabal bat. Hamabi bat euskal tribu juntatu ziren eskualdeko jenioari eskerrak bihurtzeko. Sparianiek lortu zuten Akitaniako beste populuatarik bereiz jarduteko eskubidea. Harria dagoeneko elizaren aterpean kausitzen da. Erdi Aroko Santiagorako beilariek Zalduzabar eta Zalduberri gazteluez gerizatu Ahaizparrena aberatsa trabeskatzuten zuten. 1784an Baionaren alde finkatu frankizia ahalkegarri baten ondoriozko kontrolak jasan ezin zituztelako Hazparneko emakumeak oldartu ziren. Haserre Lapurdiko herrietara hedatu zen. Frantses erregearen hainbat soldadu bidali ziren Hazparnera eta erraten denez 5.000 fusil harrapatu zituzten. Garai gatazkatsu haie-

tan, mendekuz, elizako dorrea leherrarazi zuen Neville intendentak. 1816an baizik ez zen berriz eraikiko.

1782an Hazparnen sortu zen Martin Larralde, Bordaxuri etxean, eta 1821an zendu atzerrian. Zebaiten ustez ez omen zekienek idazten, Manez Etxeto-Katzo bertsolariak paperean jarri zituen 1815ean *Galerianoaren kantua* handios haren hitzak Martin Larraldek paratuak, Rocheforteko kartzelan zegoela bere aitaren hilketaz errudun egiten zuen Paueko auzitik landa. Peio eta Pantxoak famatu zituzten koplak. Joseba Sarrionandiak beranduago Ruper Ordorikak abestu *Martin Larralde* tituluarekiko poema bat idatzi zuen. Piarres Lartزابalek orraztu eta Iparraldeko taula gain herrikoietan jolastu *Bordaxuri* antzerkia ahanzi gabe. Hona, dastaz, azkenaitzineko bertsoa:



“Kantu hauk eman ditut Paueko hirian / burdinez kargaturik oi presondegian / bai eta kopiatu denbora berian / orok kanta ditzaten Hazparne herrian...”

Euskal Herri idealaren irudi

Baionatik 25 kilometrotan dago Hazparne. Bastida, Ahurti, Beskoitze, Haltsu, Jatsu, Mugerre, Makea, Aiherra, Lekuine, Lekorne eta Kanbo dauzka auzo. 6.200 biztanle biltzen dira 77 kilometro koadroko eremu batean. Zureria gorri, berde edo urdindun etxe



zuriak altxatzen dira espaloietarik. Elizanbururen kantueta baizik aurkitzen ez den Euskal Herri baten irudi ideala oparitzen du Hazparnek, eliza, pilota plaza zabala eta bere ehun urteko haritz entzutetsuekin.

Hiriaren izenak, batzuen ustez, haritzen presentzia nabarmen hori luke iturri, baina “barren” elea gehitzen zaien “ahetz” edo “aitz” eus-kara zaharrean harkaitz errateko hitzean bermatzen dela ondorioztatzen dute besteek. Egiaz aski da begiak altxatzea, Aiherratik etor-

tzean demagun, berdetasunak ilusitu hiria zernaitz baten maldan hedatzen dela frogatzeko. Baionako kartularioetan hiriaren aurreneko aipamena 1247an agertu zen.

Gaur Hazparne hamabi auzo distiratsutan bihikatzen da: Eliza-berri, Minhotz, Kosta, Zelai, Hiria, Plaza, Hazketa, Labiri, Paxkoenea, Peña, Sohano eta Urkoi. Urkoiko plazatik abiatzen da Urtsua mendirako oinezko ibilaldi ederra. Bidea ibai hertsu kantariaren saihetsetik doa, malda erditara iristean, Baigura zutitzen dela ortzaizean, bai eta

Bidarraiko zein Itsasuko gailurren kordela. Azken metroak ez dira errazak, trebea izan arren, hatsa laburtzen sentitzen delako 678 metrora hupatzean. Gainera Lapurdiko lautada osoa zehaztu daiteke, zerua zohardi denean itsas bazterrerraino, bestela ZUPeko egoitza zurbilek Baiona seinalatzen dutela. Pare bat gaztelu zahar dauka, denboran zehar Urtsua-mendi zelata-leku egokia zela gogoratzeko doia. Urkoira jaistean XVII-XVIII. mendeetako harri gorrizko zutabeez hornitu etxe



Urtua mendiaren ikuspegia.

gotorrak ikusgarriak suertatzen dira.

Hazparnen barna isurtzen diren errekek anitzak dira, guztiak Aturri handira doazenak. Ardanabia, Angelu eta Ur Handia deiturikoak adibidez igandeetako arrantzaleen paradisuak dira. Hazparne ugaria da itxuraz, naturak aberaski hazten duen herria delarik, aldi berean

baserri gunez eta hiri eremuz osatua. Ongi bizitzeko eta dagoeneko ongi bizi den lekua da Hazparne.

Espartin-egileen borroka

1780ko Lapurdiko Biltzarraren gutun batek azpimarratzen zuen Hazparneko herria gotorra, zabala eta jendetsua zela. Biztanle gehienak artisauak ziren, dendariak, har-

ginak, zurginak edo hiri bazterretan laborariak. Beraien lanaz eta industriaz zirautea azaltzen zen jada letra hartan. Joan den mendeko 70eko hamarkadara arte larrugintza eta Maulerekin batera zapa-tagintza landu bezain garatu zen. Zapatagintzaren suntsitzea ez zen oldarrik gabe egin, geratzen dela memorieta oraindik bertako gazteek moldatu Zapata Zilotik izeneko salaketa-antzerkia. Familia eta jende parrasta bati bizitzeko baliabideak bideratzen zizkion industria horrek Asiara ez-lekutu aitzineko hamarkadetan, Hazparneko Historia Taldearen ikerketek erakusten digutenez. XIX. mendeko 90eko hamarkadan heldu ziren lehen makinak Hazparnera, eta ordura arte etxeetan egiten zen beharra lantegietan bete zen, langile izpiritu, antolaketa eta mistika haziz. 1967an zuri-beltzezko argazkietan zirraragarriak diren saldoak greban jarri ziren eta haietarik 2.000 langile Baionara joan manifestatzera, Pattoteiko sirenek neurtu denbora ahitzera ez uzteko. Gaur ere Trolliet espartin-egilearen izenak berak oroitzapenak harrotzen ditu Hazparne aldean.

Etsipen garai luze baten ondotik hautsetarik esnatu zen Hazparne. Dagoeneko laborantza iraunkorra, hegazkingintza eta turismoaren



Aurreko orrialdean, XVI. mendeko eliza. Erdiko argazkian, pilotalekua; eskuinekoan, berriz, alde alde luzatzen den karrika nagusia, kasik bakarra.

ildo du bereziki sakontzen. Larunbat goizetan merkatua egiten da saihets-herrietarik etorri ekoizlee-kin, gehienak jadanik bio alorrean finkatuak. Jendea metatzen da uda ala negu izan. XVII. eta XVIII. mendeetako etxeen itzalean eta oinetan harategiak, okindegiak eta, zergatik ez aipatu, Pantxis Bidart musikariak atxikitzen duen gaztadenda kausitu daitezke. Tabernak eta jatetxeak hor daude moko finen soseguz. Industria bazter batean datza: Aiherratik hurbiltzean ageri da Lauak Holdingaren eraikuntza erraldoia, hegazkin piezak moldatzen dabilena, eskualdeko langile trebatuak hartuz.

Hamaika ibilaldiren abiatze

Hazparnera datorrenak ez du plaza laxo edo trinketeko pilota partidarik huts egin behar. Noizbait pilota elkarteak jarraitzen du gazteak moldatzen *Gaskoia* erraten zioten Erratzun (1819-1859) eta 1979an Lekuinen sortu Xalaren urratsetarik izar bihurtzea xede. Goi-mailako kirolariak ez direnek ere badukete ausartzeko aukera ezen Hazparnetik Lapurdi barnealderako oinezko ibilaldi asko abiatzen baitira. Erran gabe

doa miresgarriak direla Elizaberriko baselizako aldare kolore aniztuna, Sant Joseph Lizeoak aterpetzen duen Bihotz Sakratua deituriko kaperako freskoak, hilerrietako harri borobilak, Milafrangara Napoleonek zulatu bide gora-

**Miresgarriak dira
Elizaberriko baselizako
aldare kolore aniztuna,
hilerrietako harri
borobilak, Milafrangara
Napoleonek zulatu bide
gorakoa, eta noski
legoa eskasetan dauden
Otsozelaiko harpeak**

koa eta noski legoa eskasetan dauden Otsozelaiko harpeak edo Kanboko Edmond Rostanden Arnaga gaztelu neoeuskalduna.

Aña Debrua eta Francis Jammes

Hazparnek euskara zinez ohoratu du betidanik. 1863an Bonaparte printzeak marraztu mapan finkatzen da sartaldeko behenafarrera

dela hemen erabiltzen. Hiriart-Urruti, Charriton, Dirassar eta Etxezaharretaren trakako idazleak ernatu dira hondar bi mendeotan. Agian bertsolariak izan dira egundainokoan abil, ele errazeko zirtolari eta ironiaz busti ospearen jabeak, hala nola Mendiaga, Xetre, Katzo, Larralde-Bordaxuri edo Xubero-Hoditei. Ezin dugu isilean utzi 1873an Peña Iratxeteian jaio Aña Etxegaray. Berak osatu *Oraiko Dama Gaztiak* eta *Peñako Bi Abizpen kantua* gutaraino iritsi dira. 1939an zendu zen “Aña Debrua” izengoitidun soa zoharreko andre bizitorea.

Duela zenbait urte A Coruñaiko Galeusca batean Manuel Maria poetak jakin zuenean Euskal Herri iparraldekoa nintzela galdatu zidan bere partez arrosa baten pausatzeraz joatea Hazparneko Francis Jammesen hilobira. Oroitu nintzen orduan Tournay herrian sortu olerkari frantziarraren (1868-1938) azken egoitza zela Eihartzea, eta gaurkoan munta handiko kultura ekitaldi franko hor antolatzen direla. Hazparne hiriaren etorkizun goseak indartsu dirauela frogatzeko bezala. ■



SENDAGILE ----- JANKO GREKOA		JUDUEN GUR- TZA-TOKIA ----- ZEIN		BURUZAGI ARABIAR	 DANT BLANCO	BEGIRA ----- ZATI BAKAR BATEZ EGINA		IRATZEA ----- INDARTSU		ZORU ----- KINGSTONGO BIZTANLE	
SANTU, DEUN ----- BIRAK							HARIA BILDUZ EGIN- DAKO BOLA ----- SOKA LODIA				
				FUTBOLEAN, TANTO ----- ASTUNA			LAPURDIKO HIRIBURUA ----- PERTSONAIA- REN ABIZENA				
KILOA ----- BORROKA KIROL		GENE MULTZOA ----- SAKELAKO TELEFONO, SEGAFOTO						ALFER ----- IRARLEAREN EGINKIZUN			
				HOTS, HAU DA ----- UGAZTUN BIZKORRAK					ESTRON- TZIOA ----- ZOLITU		
KIRIKINO, TRIKU	HERDOIL ----- LAUA, XUMEA				TAMAINAZ TXIKITU ----- OKER						
							DUELA 24 ORDU ----- TRUKE				EUROPAKO MONETA
3,1416 ----- ZAPATAREN ATAL		OPTIMISTA ----- EGUNEROKO JANGAI						NIRE ----- EZ EME			
				HARRI LANDUA ----- SEIGARREN MUSIKA NOTA							
LOGURA ----- PERTSONAIA- REN IZENA						IKARAZ, DARDARAZ ----- MEGA					
								DESAGER- TUTAKO UGAZTUN			

[illegible]

Euskal sena mundura zabaldu zenekoa

25 URTE bete dira Bernardo Atxagaren *Obabakoak* ipuin bilduma argitaratu zela. Ereinek kaleratu zuen 1988an, gerora munduko hainbat hizkuntzatara itzuliko zen liburua. Espainiako Sari Nazionala ere jaso zuen, Madrilén euskaldunen ahotsa entzuten ez zen garai horietan. Atxagak berak onartzen du Espainiako Sariaren berri izate-rakoan sinesgaitza iruditu zitzaio-la, eta erdi barrez hartu zuela, hain zela itxia Espainiak zuen jarrera gure munduarekiko, sari hori bere-ganatzea imaginaezina eta urruna egiten zitzaio-la.

Urtemuga dela eta, Bizkaiko hiriburuko Bilbo Zaharra euskal-tegiak hainbat ekitaldi antolatu ditu urte barruan. Besteak beste, *Obabakoak* desberdinen azalak bil-tzen dituen erakusketa (Norvegia, Japonia, Korea, Erresuma Batua, AEB, Alemania, Israel, Suedia, Frantzia, Espainia eta Portugalen argitaratutako aleak daude ikus-gai); Ereinek euskaraz eta Alfagua-rak gaztelera argitaratutako edizio berezien aurkezpena; eta *Obabakoak* liburuaren irakurketa publikoa Arriaga antzokian, non 400 euskal-tzaiek 12 orduz eta jarraian, liburu osoa leitu zuten.

Idazlea eta hiria

Askotan aipatu du Atxagak Bilbon egin zela idazle. Ekonomia ikaske-tak egiten ari zela, Arriagako kafete-gian Pott bandako solaskideekin izandako tertuliak gogoratzen ditu —Bilboko zubiak, kaioak eta hiri honetako kaleen hainbat errefentzi aurkitu daitezke, oraindik ere, astea-suarraren literaturan—. Joseba Sarrionandia, Joxemari Iturralde, Manu Ertzilla, Jon Juaristi, Ruper Ordorika eta Bernardo Atxaga bera biltzen ziren, eta amaierarik gabe eztabaidatzen zuten, tradizio litera-rio gabeko euskal literaturaz, euska-ra eta itzulpengintzaz, gure hizkun-tzaren garaikidetasunaz eta bestez.

Gezurra dirudien arren, Euskal Herri-ko urrun, Eskozian, idatzi zuen Atxagak *Obabakoak*, Asun Garikano, egun emazte duenaren



Obabakoak liburuaren irakurraldiko afixa, Zumetak egina.

orduko bizitokian, eta idazmakina-z. Ipuin bilduma honek hainbat forma izan zituen liburu izan aurretik. Adi-bidez, film baterako gidoi edo irrati-rako istorio labur. Ez zuten argia ikusi, istorioa konplexuegia omen zen, garaiko baliabideen arabera.

Horietan deskribatutako mundu magikoa, errealitatea eta ametsaren artekoa izango zen gerora, ipuin bil-duma honen ezaugarri nagusia. Haurtzaroarekin lotzen du idazleak mundu magiko hori, batez ere libu-ruaren lehen atalean agertzen diren animalia ia mitologikoak, beren irrealitateagatik. Txikitako gogoe-tak, herriko ehiztariei entzundako istorio ilunak, izan ziren liburuan agertzen diren animalia imaginario hauen abiapuntua.

Nekazal giroaren deskribapena egin zuen asteasuarrak. Euskaldu-nona izan zitekeen, baina baita munduko edozein bazterretako nekazal giroa ere. Giro ilun, itxi, ezezagun hau liburuaren ardatz bilakatu zen, orduko idazle zein intelektualek, bertakoek zein kan-potarrek mespretxatzen zuten giroa

zen, hain zuzen. Giro horretan bizi zirenak traukilak, ezjakinak ziren, orduko hiritartasun moder-noaren kontrakoak. Oteizak txalapartarekin edota Arestik pasto-rarekin egin bezala, teoria poetikoa baliatu zuen Atxagak euskal nekazal mundua deskriba-tzeko.

Antonia eta Obabakoak

Antonia S. Byatt idazle ingelesa Europa mailan egin zen lehen lite-ratur lehiaketako epaimahaiko buru zela aukeratu zute Atxagaren *Obabakoak* liburu lehiaketan parte hartzeko. Portugaleko eta Herbehereetako lobbyak gogor ari ziren euren idazleen alde, eta *Oba-bakoak* aurrea hartzen hasi zenean, argudiatu zuten hizkuntz gutxia-gotu batean idatzitako liburuak ezin zuela lehiaketako garaile izan. Gogor jokatu zuen Atxagarren obraren kontra. Azkenean batzuk eta besteak kanpo geratu ziren, eta beste batek irabazi zuen. Hala ere, sariak banatu zirenean, irabazlea *Obabakoak*-ek behar zuela esan zuen Antonia S. Byattek. Hitz hauek nahi-koak izan ziren hurrengo egunetan Erresuma Batuko hiru argitaletxek Atxagaren atean jotzeko.

“Mundua, herriak, argitaletxeak eta itzultzaileak zein desberdinak diren” esan du Atxagak, *Obabakoak*-en hedapena ikusita. “Frantsesak edo ingelesezko itzultzaileak askotan zure agenteak ere bihurtzen dira. Bestalde, portugaldarrek ez dute kontsultarik ere egiten. Baina, asko-tan ez dakizu norako bidea hartuko duen liburuak. Harrera ere erabat aldatzen da leku batetik bestera. Hala ere, idazle bezala asko ikasten da. Itzulpeneren gaiak ez du buelta-rik, itzulitako hizkuntzaren muina jakitea zaila da. Zenbait itzulpeneren ez dut hitz bat bera ere ulertzen, eta horregatik, fede onez jokatu behar duzu itzultzaile ona egokitu zaizun ala ez jakiteko. Gure amak kandela jartzen zuen bezala”. ■

Myriam Garzia



Inurriek lurrikarak detektatzen dituzte

ALEMANIAKO Duisburg-Essen Unibertsitateko Gabriele Berberich biologoak Geozientzien Europako Batzordeen urteko biltzarrean aurkeztutako azterketaren arabera, inurri espezie batzuek lurrikaretatik babesteko neurriak hartzen dituzte.

Inurri gorriak aztertu zituen Berberich, eta Richter eskalan 2 edo faktore handiagoko lurrikarak detektatzen zituztela ikusi zuen.

Datuak neurtzeko eta biltzeko hainbat bideokamera kokatu zituen software bati lotuta, inurriak bizi ziren eremu batean. Denbora luzean hartutako irudietan oso garbi azaltzen da lurrikara gertatu aurretik inurriak ez direla euren babeslekura sartzen, hau da, kanpoan irautea dutela lurrikara igaro arte. Kanpoan denbora asko emanda harrapari batek jateko arrisku handiagoa dute, baina lurrazpiko babeslekuetara ez sartuz betiko lurperatuta geratzea saihesten dute.

Jokaera hori garbi ikusi dute ikerlariek; ez dago hain garbi, ordea, inurriek zer sistema erabiltzen duten lurrikarak detektatzeko. Ustez, hargailu batzuen bidez suma ditzakete airean gertatzen diren karbono dioxido kopuruaren eta eremu elektromagnetikoen aldaketak. ■



QUARTL-CC BY SA



Plastikozko “kontinentea” esploratzeko bidaia

KQED



BEHIN BAINO GEHIAGOTAN aipatu dugu Ozeano Barean plastikoz jositako itsas eremu zabala dagoela. Zientzialariak gero eta gehiago ari dira itsas eremu hori aztertzen, betetzen duen eremua ez baita txantxetako: 3,4 milioi kilometro koadro.

Azken espedizio zientifikoa Frantziako CNES erakundeak antolatu berri du, eta helburu nagusia sateliteetatik ateratako irudiak

interpretatzea izan da, hau da, hondakin kontzentrazio handi-
goak eta txikiagoak non dauden bereiztea, eta horiek sateliteeta-
ko irudietan nola irudikatzen diren ikastea. Horrela jakingo
baita, adibidez, plastikozko itsas eremu hori zabaltzen ari den ala
ez, eta bertan dagoenetik zer den planktona eta zer plastikoa. ■



Babeslea: iametza Interaktiboa

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

iametza

interaktiboa

www.iametza.com

T.943 37 67 16

Garaieraren eta hizkuntzen soinuaren arteko harremana

PLoS ONE aldizkarian argitaratutako emandako artikulu baten arabera, geografiak –garaierak, zehazki– baldintzatu dezake hizkuntza batek zer soinu mota edukiko duen. Munduan hitz egiten diren 600 hizkuntza baino gehiago aztertu dituzte, eta bereziki konsonanteen ahoskeran nabaritzen dira desberdintasunak.

ttiki.com/51924
(Gaztelaniaz)

Zubi-hizkuntzak baliatu hiztegiak sortzeko

Ia hizkuntza guztiek dute hiztegi elebidunen bat hizkuntza “handiren” batekin (normalean, ingelesa). Eta horrelako bi hiztegi baliatu ditzakegu, hizkuntza “handi” hori zubi moduan hartuta, bi hizkuntza txikiren arteko hiztegi bat eraikitzeko. Hori egiten ari dira Elhuyarren.

ttiki.com/51925
(Euskaraz)

2050ean 9.600 milioi pertsona biziko dira munduan NBERen arabera

Indian Txinan baino jende gehiago biziko da (1.450 milioi biztanle), Afrikak egungo populazioa bikoiztuko du (2.400 milioi), eta 60 urtetik gorakoen populazioa laukoiztu egingo da egungoarekin alderatuta (2.000 milioi pertsona).

ttiki.com/51926
(Frantsesez)

Intsusaren txirrinta

AURTENGOAN ERE berandu nabil. Beti da berandu eta, eskerrak. Urtero udaberriaren bihotzean loratzen den intsusaz (*Sambucus nigra*) zerbait idaztea gustuko dut. *Corylus avellana* hurritzaren antzera baztertua dugu, eta niri ez gustatzen... Bi kriskitinek gogorazi didate intsusaren aurtengo ahanztura.

Duela pare bat aste, bihotze-koa dudan sukaldari talde baten lana dastatzeko aukera izan nuen. Nik beti arrainak eta barazkiak jateko txirrinta, baina haien pare jarri zuten sagarra, *Malus x domestica*. Negu osoa eta udaberriaren erdia ganbaran igaro dituzten sagarren muztio egin berria. Izugarria; hura gutizia. Ez zen muztio hutsa ordea. Ahosabaian beste zerbait salatzen... Eta zer izango zen bada? Gure intsusa paregabearen lore fina. Intsusa-lore siropa zuen nahasia. Egun erdiz loreak uretan beratu behar dira, eta limoia edota laranja edota nahi den usaingarria edo gozagarria gehitu. Gustuko duzun proportzioan nahasi muztioari.

Ardoa ere dastatu izan dut, intsusarena. Eder askoa. Ardoa du oinarri, zuri lehor, gozo, gorri edo beltza, zerorrek erabaki. Sartu litro betean dozena erdi bat lore ginbail, eta zeuk antolatu ardoaren gainaldera ez azaltzeko era. Eduki



JELuF-CC BY SA

Sambucus nigra, intsusa.

beratzen pare bat egunez, atera loreak eta ardo-hustu eskuetan. Ondorengoak zeure gogara: garbitzeko, iragazi nahi adina aldiz, erantsi gozagarriren bat (azukre, ezti...), gehitu alkohola, beste uxual edo edari bizi pittin bat. Ni intsusaren berezko usain eta dasta hutsen zalea naiz, baina erantsi gustu duzuna: arrosa usaintsuen petaloak (*Rosa* sp), larranbiloa (*Matricaria chamomilla*), kanela (*Cinnamomum verum*), mihilua (*Foeniculum vulgare*), oreganoa (*Origanum vulgare*)... Intsusarekin egindako "garagardoa" ere zintzurretik pasea dut, komentuko baratzezai-

na zen moja baten esku maskurrez beteek egina.

Bigarrena, bizi berria naiz. Izugarritzko euriteak zetozela eta, erre-kak eta jendeak elkarrekin bizitzeko nola antolatu diren ondoen ikusten den gure bailaretako batera joan nintzen. Basaburu Txikiara. Lagunak ere tartean, eta egun pare moldatu genuen. Gure etxe kontrako intsusak azken loreak zituenean, hangoak puri-purian. Nonahiko bazterretan ginbail aterki laruak irekita. Ez da hemendik aurrera lore hori asko ikusiko. Aurten. ■



Txangurrua

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

Gurutzatua alemaniar erara

WWW.MIDDLE-AGES.ORG.UK

CLERMONT (FRANTZIA), 1095. Eliza katolikoaren kontzilioan, Urbano II.a aita santuak sinesgabeen aurkako borrokan bat egiteko deia egin zien kristau guztiei. Lehen Gurutzadara deitu zituen, alegia.

Hilabete batzuk lehenago, Alexo I.a Komneno bizantziar enperadoreak enbaxadore bat bidali zuen aita santuarengana, turkiar seliuzidak mendea hartzeko laguntza eske. Urbano II.ak gurutzearen zutoihalaren babesean kristaudi osoa batzeko aukera bikaina ikusi zuen, bizantziarrek galdutako lurraldeak errekupeatzear gain, kristau ejertzitoak Lur Santura eraman eta Jerusalem berreskuratzuz.

Frantziaren eta Germaniar Inperio Santuaren gidaritzapean, zaldunek, soldaduek eta herritar xehe askok bat egin zuten “Jainkoak hala nahi du” lelopeko kanpaina itzelarekin; batzuk kristau fanatikoak ziren, beste batzuek ez zuten nora joan eta Gurutzada harrapakina lortzeko aukeratzat zuten. Azkenean, migrazio masibo eta arrakastatsua bihurtu zen. 1099an, aita santua hil zen urte berean, Jerusalem konkistatu zuten. Baina gudu-zelaian hildakoen kopurua izugarria izan zen, eta ez zen erraza guztien –edo, behintzat, pribilegiadunen– azken nahia betetzea.

Familia nobleko zaldun gehienek, hilez gero, beren gorpua sorterrira eraman zezaten eskatzen zuten. Baina



Gurutzatuak turkiarren aurka borrokan. Miniaturan biktima guztiak turkiarrak dira eta haien gorpuak txikituta ageri dira. Gudua amaitzean, teutoiek gauza bera egiten zuten beren hildakoekin, baina arreta eta maina handia jarrita.

garai hartako azpiegiturak eta osasun eta higie-ne baldintzak kontuan hartuta, dozenaka gorpu milaka kilometrotan garraiatzeak ez zirudien oso komenigarria.

Germaniar Inperio Santuko zaldunek arazoa konpontzeko errezeta topatu zuten. Horrela deskribatu zuen Buoncompagno da Signa XIII. mendeko historialari italiarrak *Mos Teutonicus* (hileta alemaniarra) delakoa: “Atzerrian hiltzen badira, alemaniarrek goi mailako zaldunen gorpuei erraiak erauzten dizkiete, eta gainerako

gorpuzkinak, laurdenkatuta, pertzetan irakiten uzten dituzte luzaroan. Haragia, tendoiak eta kartilagoak hezurretatik bereizten dituzte. Ondoren, hezurak ardo lurrindutan bustitzen dituzte eta espeziatan hautsezta-tzen. Eta, azkenik, etxera eramaten dituzte”. Hala, infekzio gune astunak zirenak, bidaia-lagun atsegin bihurtzen zituzten: garraiatzen errazak ziren, eta usain goxoa zuten, gainera.

1300ean, sukaldaritza jarduera bitxiaren praktikotasunari muzin eginez, Bonifazio VIII.a aita santuak *De Sepulturis* bulda promulgatu zuen: eskumikuaren azpian, debekatua zegoen gorpuek laurdenkatzea eta egostea, hezurak eta haragia bereizteko. Baina, ordurako azken gurutzada amaitua zen ordea, eta zaldun teutoien hezur garbiak, aspaldiko atsedenean. ■



Arrastoak

Keep calm and...



KEEP CALM AND... eta orotariko amaiera duten esaldiak edonon daude azkenaldian: sare sozialetan, elastikotan, kikaretan eta, oro har, edozein souvenir edo merchandising euskarritan.

Fenomeno biral nahiko berria izanagatik, jatorria II. Mundu Gerran

du denetarako balio duen egiturak. 1939an Erresuma Batuko Informazio Ministerioak, herritarrei adorea emateko, hainbat afixa zabaltzea erabaki zuen; horregatik esaldiaren gaineko koroa. Afixa horietako batek: *Keep calm and carry on* (lasai eta segi aurrera) zioen. ■

Berdintasuna eta solidaritatea oinarri

Marinaledako (Sevilla, Andaluzia) gizarte antolaketa sozialismoan oinarrituta dago, 1979an CUT alderdiak Udaleko agintea hartu zuenetik. Herri kooperatiba, hilean hamabost euroren trukeko etxebizitzak, doako zerbitzu sozialak... Egungo krisiarekin jendartea eredu sozioekonomiko berriak bilatzen ari den honetan, halako ispiluak ezinbesteko dira.

Testua eta argazkiak:

| AMAIA ZABALA TOLOSA |

ANDALUZIAKO edozein herri xume bezalakoa da Marinaleda. Hara iritsi arteko bidea laborantzarako lurrez osatutako kilometro luzeak dira. Herriaren sarreran jatetxe handi bat, kale txikiak eta lasaiak, etxe zurién atarietan emakumeak txapin eta mantalekin, herriaren bihotzean parke itzaltsu eta kolorezkoa... Andaluziako edozein herri xume bezalakoa da Marinaleda, itxura batean.

Izan ere, bisitaria abiatuko da herrian barna eta *¡Contra el capital, guerra social!* (Kapitalaren kontra, gerra soziala) irakurriko du horma batean, segituko du aurrera eta *¡Hasta la victoria siempre!* handi bat ikusiko du. Mundu osotik babes



Etxebizitza sozialak dira Marinaledako lorpen handienetako bat.

eskainiz egindako marrazkiek apaintzen dituzte Marinaledako paretak. Hara joaten denak kaleen izendegiari erreparatuko dio eta iraultzarako hiztegi bat irudituko zaio: *Fermin Salvochea, Plaza 1 de mayo, Ernesto Che Guevara, Gbandi, Salvador Allende, Solidaridad, Fraternidad, Igualdad, Avda. de la Libertad, Blas Infante* —hau dela eta, eskuin muturraren erasoak jasan zituzten—; udaletxeko armarrarian ez du koroaren ikurrik aurkituko —Hirugarren Errepublikako herrialdeen kide da—, ezta Aste Santuko prozesioan udal ordezkariak ere. Marinaleda Andaluziako edozein herri xume bezalakoa baita, baina jornalarien herri matxinoa ere bai.

Herri asanblearioa

Sevillako probintzian kokatua, apenas ditu 3.000 biztanle. 1979az geroztik Juan Manuel Sánchez Gordillo da alkate. Juan José Sancho González, CUT (Colectivo de Unidad de los Trabajadores) alderdiko kiderik gazteenaren esanetan, Andaluziako jornalari eta jende umilaren liderra da Gordillo: “Beti borrokatu du herriaren eskubideen alde eta herritarrek mirespena diote”. Egun, udala Izquierda Unida alderdiaren barruan dagoen CUT alderdiko bederatzi zinegotziz eta PSOEko bi zinegotziz osatuta dago.

Esperanza del Rosario Saavedra Martín udaleko zinegotzi eta herriko haur eskolako langilea da; Marinaledako sistema sozioekonomikoa herritar guztiei berdintasunean beraien betebeharrak asetzeko aukera ematen dien sistema moduan definitzen du: “Agian ez da egokiena, baina gaur egungo sistema kapitalistaren barnean lortu daitekeen sistemarik duinena da”.

Ez alkateak ezta zinegotziek ere ez dute udaleko lanagatik soldatarik kobratzen. Saavedrak argi utzi du udalean ez zirela aberasteko sartu, herriaren alde lan egiteko baizik. Bere esanetan, alkateak eta zinegotziek kobratuko balute ezingo lukete egungo jardunik egin: “Deigarria da zinegotzi, alkate, eta ministroek nonahi eta nolanahi lapurtzen duten garaiotan, guk —ez lapurtzeaz gain— ezer ez kobratzea udaleko lanagatik. Jarraitu beharreko eredia dela uste dut”. Izquierda Unidak hitzarmena egin du bere estatutuetan; Andaluziako Parlamentura iristen den diputatu orok lehen zuen soldata bera izaten jarraitzen du eta sobratzen den dirua alderdira bideratzen da.

“Gobernua herritarrei diru-laguntzak ematera behartu behar da, bankuei ematen dien moduan”

Esperanza del Rosario Saavedra, zinegotzia

Marinaledan “demokrazia osoa” dago. Asanblada bidez erabakitzen da dena. Astean behin izaten dira eta furgonetan megafonia bidez jakinarazten diete herritarrei horren berri. Erabaki arruntak hartzeko 200 bat lagun biltzen dira, baina eskubideen aldeko mobilizazioez edo lanpostu berrien banaketaz hitz egiten denean 600 bat lagunek hartzen dute parte. Herriaren biztanle kopurua kontutan harturik “portzentaje esanguratsua” da Sanchoren ustez.

Diru-laguntzak: bankuei bai eta herritarrei ez?

Herri-antolaketa eredu horri egiten zaion kritika nagusia da Andaluziako Juntaren eta Espainiako Gobernuaren

diru laguntzei esker bizi direla. Aitzitik, Saavedrak dio dirua daukari kendu behar zaiola eta ez txiroei. Hori dela-eta hainbat zerga ez dituzte igo Udalera iritsi zirenetik. Esaterako, herriko tabernek hilean 12 euroko zerga baino ez dute.

Egiaz, herritarrek Marinaledako aurrekontuaren %1,7 soilik ordaintzen dute. “Administrazioei dirua atera behar diegu eta Gobernua behartu behar da herritarrei diru-laguntzak ematera, bankuei ematen dien moduan. Diru-laguntza horiek lortzeko asko borrokatu dugu guk urte askoan”, aldarrikatu du Saavedrak. Udalen finantziazio lege bat beharrezkoa dela dio zinegotziak, baina hori Espainiako Gobernuari

ez zaiola interesatzen: dirurik gabe udalak ez dira independente nahi duten politika aurrera eramateko.

Marinaledako funtzionamenduan ezagunena eta deigarriena etxebizitza sozialak dira. Hilean hamabost euroren truke edozein herritarrek izan dezake etxebizitza. Udalak lurra,

materiala eta igeltseroak ipintzen ditu eta etxearen jabea izango denari edo bere ingurukoei etxea eraikitzen lan egiteko aukera eskaintzen diete. Soldata erdia jaso eta beste erdiarekin etxebizitza ordaindu. Baldintza bakarra 125 urtez hileko hamabost euroko kuota ordaintzea da, guztira 22.500 euro.

Etxe hauek Udalarenak dira, beraz bertan bizi

1980ko hamarkadako borroken ondorioz lortu zituzten marinaledatarrek orain dituzten lurak.

ESTE CORTIJO ES PARA LOS JORNALEROS EN PARO DE MARINALEDA



“Bakeranzko utopia” dio Udaleko leloak. CUT alderdiak 1979an lortu zuen alkatetza eta geroztik Marinaledako eraldaketa gidatu du.

direnek ezin dituzte ez saldu ezta alokatu ere. “Hau ez da arazo bat, baldin eta etxebizitza gizaki ororen eskubide dela ikusten baduzu eta ez espekulatzeko ondasuna. Herri honetan mila euroko hipotekak inork ezagutzen ez dituen mamuak dira” dio Sanchok.

Joaquin Saavedra herritarra etxebizitza sozial hauetako batean bizi da jaio zenetik eta sistema ezin hobea deritzo: “Edozein etxebizitza arruntek duen guztia dauka eta hipotekaren ardurarik izan gabe”. Saavedraren esanetan gainontzeko herrietan ez badute etxebizitza sistema hau martxan jartzen da irabazirik ematen ez dielako eta ondorioz interesatzen ez zaielako.

Marinaledari ere eragin dio ordea krisiak, eta herritarrak biziki ari dira mugitzen egungo egoeraren aurka. Iazko udan antolatutako martxak

edo hain ezagun egin ziren Mercadona supermerkatuetako “lapurketak” dira horren erakusgarri.

Egun ez dago “enplegu osorik” krisi aurreko urteetan bezala, %16ko langabezia baizik; Andaluzian baina, biztanleen %36 lanik gabe dago. “Langabe kopuru handia da, baina

“Herri honetan mila euroko hipotekak inork ezagutzen ez dituen mamuak dira”

Juan José Sancho,
CUT alderdiko militantea

hala eta guztiz ere ez dago herritarrik bi urte langabezian daramatzanik, ezta etxetik kaleratua izateko arriskuan dagoenik ere eta jateko dirurik ez duenik ere ez. Lana guztion artean

Zerbitzu sozialen prezioak

- Haur eskola, jantoki eta guzti, hilean 15 euro.
- Eskolako jantokia, hilean 2 euro.
- Igerilekuan 50 bainu hartzeko bonua, 3 euro.
- Gimnasioa, hilean 2 euro.
- Wifia doan herritar ororentzat.
- Etxerako laguntzak doan adinekoentzat eta menpekotasunen bat dutenentzat.
- Zaharrentzako egoitza eta zaintza doan.
- Lan-formazio tailerrak doan.
- Egun seinalatuetako herri afariak doan (aurten ez krisia dela eta).

banatzen baitugu, elkarri lagunduz”, dio Sanchok.

Humoso kooperatiba, herriaren oinarri

Marinaledako nekazariak beti borrokatu izan dira jabego pribatuaren aurka eta euren eskubideen alde.

1977an Sindicato de Obreros del Campo (SOC) sortzearekin batera ekintza sindikalak ugartitu egin ziren eta 1980ko hamarkadan Infantadoko duke eta terratenientearen lurrak berreskuratzeko ahaleginak ugartitu ziren. Garai haietan Marinaledako herritar guztiak batu eta lurrak okupatzera joaten ziren, bertako zaindarien botatzen zituzten arte. Hurrengo egunean ordea, berriro bueltatzen ziren, eta horrela hainbat urtez, jabeek negoziatzea lortu zuten arte.



Ezkerrean, Humoso kooperatibako instalazioak. Eskuinean, Juan José Sancho CUTeko kidea eta Esperanza del Rosario Saavedra udal zinegotzia eta herriko haur eskolako langilea, Marinaledako udaletxeko bulegoan.

Nahiz eta egun gogorrak izan poztasunez gogoratzen ditu Rosario Saavedrak, egungo udal zinegotziak. Izan ere borroka luze hartan lortutako lurrei esker egun herritarren “biziraupenerako ezinbestekoa” den Humoso kooperatiba dute martxan. Dena den, Juan José Sancho datu argigarri bat eman digu: egun oraindik Andaluziako lurren zatirik handienak Infanterriko dukearen eta Albako dukesaren eskutan jarraitzen dutela.

Marinaledan jornalariak dira gehiago eta Humoso kooperatibari esker bizi dira bertako herritarrak. Kooperatiba lehen eta bigarren sektoreaz arduratzen da eta orain hirugarren sektorea zabaldu nahian ari dira. Manolo Martín Fernández kooperatibako kidearen esanetan kooperatibak berak saltzea garatu nahi dute, merkaturatzen dutenek eraman ohi dutelako diru gehiena. Lurra, sasoi ezberdinetan lantzeko laboreetan banatzen da, lantegian urte guzti-

rako lana izan dadin. Babak, alkatxofak, piperrak, babarrunak eta baratxuria kontserbatan sartzen dituzte eta olibekin berriz olio egiten dute. “Mercadona da gure eroslerik handienetako bat, kopuru handiak sal-

“Nekazal industria da Andaluziako jornalarien irtenbide bakarra, lehen bi hilabeterako lana baino ez zegoen soroetan”

Manolo Martín,
Humoso kooperatibako kidea

tzen dizkiogu modu onean eta hala ere salaketa jarri digu, ustez lapurtu genizkien gurdien kasuagatik” aditzera ematen du Martínek. Kexa da zenbaitek kooperatiba “luparekin” begiratzen duelako: “Itxi ez badute ezin izan dutelako da”.

Erabateko errendimenduko garaietan 500 bat langilek egiten dute lan kooperatiban eta guztiek soldata bera dute, hilean 1.200 eurokoa, astelehenik larunbatera egunero sei ordu eta erdiz lan eginez. Langile guztien artean hartzen dituzte erabakiak, asteroko komisioen bidez. “Kooperatibaren helburua ez da kapitala pilatzea, baizik eta lortzen diren irabaziekin lanpostu berriak sortu eta enpresan inbertitzea” dio Martínek. Bestalde, kide batek kooperatibatik irtetea erabakitzen badu ez dauka enpresako akzioekiko inongo eskubiderik eta zuzenean beste herritar bat sartzen da. Martínek nabarmendu du

gutxienez familia bakoitzeko kide batek egiten duela lan kooperatiban: “Nekazal industria da Andaluziako jornalarien irtenbide bakarra. Kooperatiba sortu aurretik herritarren gehiengoak emigratu egin behar izaten zuen, bi hilabeterako baino ez zegoen lana soroetan”.

Hala ere, Marinaledako ekosisteman dena ez da perfektua. Juan José Sancho ingeniari-tza ikasketak egiten ari da Sevillako Unibertsitatean baina gutxi dira herrian bera bezala unibertsitatera jo dutenak. “Kooperatiban lana izango dutela ziur dakite-nez ez dute unibertsitatera joateko beharrik ikusten” dio CUTeko kideak. Bestalde, bere ustez bertako gazteen artean ez dago lehengo borroka espiriturik.


Felix Talego Vázquez antropologoa Marinaledan bizi eta gainontzeko jornalari-ekin batera lanean aritzen urtebetez. 1996an *Cultura jornalera. poder popular y liderazgo mesiánico* liburua kaleratu zuen, Marinaledako sistemaren inguruan tesi sakona. Berdintasunean eta solidaritatean oinarritzen den eta marxismoaren, kristautasunaren eta anarkismoaren osagarriak dituen sistema moduan definitzen du. Sistemaren lorpenak gorai-patzen ditu bertan, baina ahuleziak ere ikusten dizkio, bere esanetan herritar guztiek ez baitute modu berean parte hartzen erabakietan. Talegoren esanetan, sistema guztia bideratzen duena Juan Manuel Sanchez Gordillo lider karismatikoa da. ■



EUSKAL OROIGARRIA

MAKILA

eskaintza berezia



- Opari berezietarako
- Pertsonalizatuak
- Prezio aukera desberdinak
- Iñaki Alberdik eginak



 **argia**

Eskaerak:

Zirkuitu Ibilbidea, 2 - Industrialdea, 15
20160 Lasarte-Oria (Gipuzkoa)
© 943 371 545 - denda@argia.com

www.argia.com/denda/makilak



Bezeroak beti euskaraz egingo balu?

Kontseiluak, duela bi aste konferentzia egin zuen arlo sozioekonomikoa euskalduntzeko bidea biziberritu nahian. Han elkartu ziren sindikatu, kontsumitzaileen elkarte, enpresa eta administrazioetako ordezkariak. Gogo hutsaren poderioz lantokiak eta merkataritza euskalduntzen aritzetik egituratutako prozesu bateranzko bidea aldarrikatu zuen Kontseiluak.

| ONINTZA IRURETA AZKUNE |

Argazkiak: Kontseilua

LAU HANKAKO MAHAIA garatu dute Kontseiluko partaideek arlo sozioekonomikoa euskalduntzen pauso sendoak emateko: enpresak, langileak/sindikatuak, kontsumitzaileak/bezeroak eta administrazioak. Bakoitza bere neurrian, baina laurak ezinbestekoak. Ekainaren 13ko konferentzian, protagonista guztiek hartu zuten parte.

Besteak beste, Euskal Kontsumitzaileen Antolakundeko prentsa arduradun Jose Luis Segurak hitz egin zuen. Hainbat kontsumitzaile elkarte biltzen dituen erakundeko kideak EAEko bezeroek kontsumitzaileen udal bulegoetan euskara eskubideekiko duten jarrera aztertu zuen.

Zenbait herritan egindako ariketa sinplea kontatu baino lehen zehaztapen bat egin zuen. Nazio Batuen Erakundeak kontsumitzaileek edo bezeroek dituzten eskubideen zerrenda luzea dauka, eta hizkuntz eskubideak ez dira inondik ageri. Ondoren, kontsumitzaileen lau udal bulegotako langileek bildutako informazioa jarri zuen mahai gainean. Bermeo (Bizkaia) ia erabat herri euskalduna izanda, merkataritza ia orobat euskaraz aritzeko gaitasuna du. Kontsumitzaileen udal bulegora edonolako kexa jartzera doan herritarrek euskaraz egiten du normalean. Inoiz



Ekainaren 13an, Arrasaten, ehundik gora lagun bildu ziren arlo sozioekonomikoaren euskalduntzean urrats berriak emateko asmoz.

ez du inork hizkuntz eskubideak urratzeagatik kexarik jarri. Tolosa (Gipuzkoa) da bigarren adibidea. Bazar txinatarrak direla, lokutorioak... gaztelaniaz aritzen diren dendariak badira. Herritarrek ez dute erreklamaziorik egin. Portugaleten (Bizkaia) merkataritza gaztelaniaz ari da hein hain batean. Bulegora kexatzera doazenak ere gaztelaniaz mintzatzen dira. Euskaraz egiteko aukera ukatu zaielako erreklamaziorik ez dute jaso inoiz bulego horretan. Bilboko Plaza Barriako

bulegoan beste hainbeste, kexarik batere ez, eta horretarako aukerak asko.

Herritarrek zergatik ez doaz kontsumitzaileen udal bulegoetara euskaraz aritzeko eskubidea urratzen zaienean? Jose Luis Segurak hainbat arrazoi aipatu zituen. Lehenik, azken 15-20 urteotan euskaldunak kemena eta ausardia galdu du euskararen borrokan, hoztu egin da. Bigarrenik, kontsumitzaile euskaldun askok uste du herri erdaldunetako merkataritza ez dagoela euska-

Alor sozioekonomikoa euskalduntzeko ibilbide orria

EUSKARAREN GIZARTE ERAKUNDEEN KONTSEILUAK aholkularitzen sektorea osatzen duten bazkideekin batera, duela urte eta erdi lan munduaren euskalduntzeaz diagnosia eta etorkizuneko erronkak definitu zituen. Arlo sozioekonomikoa euskalduntzeko aktore nagusitzat ordea, ondokoak hartu ditu: enpresariak, langileak, kontsumitzaileak eta administrazioak. Eragile horiek elkarpenak egin zituzten, eta ekainaren 13an, konferentzia bildu ziren denak. Kontseiluaren ustez, eragile

guztiak biltzeak du berebiziko garrantzia, bakoitza bere neurrian ezinbesteko aktore direlako. Horren lekuko da elkarpenak egin dituzten zerrenda: EAEko hiru aldundiak, Eusko Jaurlaritzak, CCOO, ELA eta LAB sindikatuak, EKA kontsumitzaile elkarteak, eta hainbat enpresa (Eika, Mapsa, Cegasa, IMH, GSR, Elay, Orkli, Cikautxo, MCC). Konferentzian bertan hainbat enpresarako ordezkariak izan ziren: Ulma, Metro Bilbao, Kutxa Fundazioa, Erkide, Fagor, Electra

Vitoria, Eusko Tren, Goizper, CAF eta Izfe. Lan munduaren euskalduntze prozesua bateko eta besteko langileen eta enpresari batzuen ekimenez hasi zen, gogo hutsez eta itsumustuka. Kontseiluko idazkari nagusi Paul Bilbaoren ustez, “boluntarismoan oinarritutako politikek eta arlo horretan egindako sustapenak emaitzak eman ditu, baina emaitza mugatuak. Noizbait euskararen erabilera normalizatuko bada, bestelako oinarri batzuk ezartzen hasi beharra dugu”.

raz aritzeko prestatuta, eta ez dagoela euskaraz egitera behartuta. Argi gera bedi, legez merkataria ez daudela euskaraz artatzen behartuta. Hirugarrenik, kexa jartzera ausartzen dena euskaldun nahiko kontzientziatua izaten da, baina ez zaio atsegin kexatzea. Gainera, kontsumitzaile baino, euskaldun gisa sentitzen da mindua, eta errazago jotzen du adibidez Behatokia.

Kontsumoa jendarte sistema honen erdigunean dagoela kontuan hartuta, kontsumitzaileak (bezeroak) bote-re handia du, eta hizkuntz eskubideen alorrean eragiteko gaitasun handia, hark zer eskatu hura emateko baitago merkatua. EKAko prentsa arduradun Segurak kontsumitzaile euskaldunak jarri ditu jomugan eta haien pisua azpimarratzeko galdera hauek bota ditu: “Bilbo-Abandoko merkatariek zer pentsatuko lukete bezeroak erabat euskaraz hasiko balira? Eta Gasteizko bankuetakoak?”.



Jose Luis Segura Euskal Kontsumitzaileen Antolakundeko ordezkariak (argazkian) adierazi zuen herritarrek haien bulegoetan hizkuntz eskubideak aldarrikatzeko ohiturarik ez dutela.

Bezeroak: ekintzaz apal, jarreraz sendo

Segurak lan mundua euskalduntzeko lau zutabeetatik bat ahul irudikatu du. Esan dezagun botila erdi hutsik ikusten duela. Kontseiluak aldiz, erdi beteta ikusteko arrazoiak eman ditu. EAEko herritarren %81ek uste du kontsumitzaileek saltoki, enpresa eta administrazioaren aldetik euskaraz eta gaztelaniaz artatuak izateko eskubidea dutela. Gauza bat da gai orokor erdi lausoez halako edo bestelako ustea izatea, eta beste bat, egunero-

koan uste hori betetzeak eskatzen duena. Nolanahi ere, %81eko hori ez da abiapuntu txarra, uste lausoa eskari trinko bilakatzeari falta da agian.

Luze aritu gara mahaia- ren lau hanketako batez. Kontseiluan bildutako euskalgintzak lehen aipatutako lau aktore (enpresariak, langileak, bezeroak eta administrazioak) identifikatu ditu, eta zein lan- ardatz garatu beharko lituzkeen finkatu, lan mundua euskalduntzen eragiteko. Ondoko lau

gida-lerroak marraztu ditu: lehenik, lan munduko sektorea euskalduntze prozesuaren inguruan egituratu beharra; bigarrenik, aitzindari izan diren enpresak aktibatu eta besteekiko lidergo lana hartu beharra; hirugarrenik, langileen artean euskaraz lan egiteko gogoia eta kontsumitzaileen artean euskaraz kontsumitu nahia barneratu beharra; lau- garrenik, arlo sozioeko- nomikoa euskalduntze- ko corpus juridikoa hobetu beharra. ■



Babeslea: IVAP



HERRI ARDURALARITZAREN
EUSKAL ERAKUNDEA



**Komunikazio
Elektronikoa**

IVAPen gomendioak web-orriak
idazteko





Kudeaketa
Kalitateari
2012

Desobedientzia zibila indar hartzen

Istanbulgo Taksim plazan sei orduz zutik egon zen turkiar batek ehunka lagun inspiratu ditu. Biolentziaz beteriko egunen ostean, jendea kalean zutik tinko geratzen hasi da Gobernuaren aurkako protesta gisa.

| LANDER ARBELAITZ |

ERDEM GUNDUZ izeneko artistak ekainaren 17an protesta egiteko zutik egotea erabaki zuen. Polizia etorri zitzaion, 'katxeatu' egin zuten, ez zen mugitu, grabatuta geratu zen unea (ikusi bideoa beheko koadroko kodea mugikorrarekin eskaneatuz), beste sei orduz geratu zen bertan, bideoak sarera salto egin zuen, eta gau hartan bertan 300 bat pertsonak egin zuten bat berarekin. Goizaldeko 2:00etan poliziak atxilotu egin zituen mugitu nahi ez zutenak. Hurrengo egunean ehunka izan ziren Gunduzek inspiratuta kalera atera eta zutik geratzea erabaki zutenak.

Gunduzen hitzak jaso dituzte BBCn. Protesta egiteko geratzen zitzaion modu bakarra zutik jartzea eta bertan tinko eustea dela dio.

Turkiako protestetan ere sare sozialek garrantzi handia izan dute, batez ere, informazio zuzena eskuratu nahi zuten herritarrek hori lortzeko modua izan dutelako. Info7 irratiko *Mundurama* saioan gaiari buruz hitz egin zuten: elkarriketatuetako batek azaldu zuen herrialdeko hedabide nagusiek



MARCO LONGARI/AFP/GETTY IMAGES

Erdem Gunduz koreografoak azaldu du protesta egiteko geratzen zaion modu bakarra zutik geldi egotea dela.

protestak zentsuratu zituztela. Gezi parkea Gobernuari desafio egiten ari zen jendez beteta zegoen unean, Turkiako CNN katean pinginoei buruzko dokumental bat botatzen ari zirela, eta hala, pinginoak zentsuraren sinbolo bihurtu direla.

Twitterren #Duranadam (zutik dagoen gizona) eta #Durankadin (zutik den emakumea) etiketak erabiltzen ari dira. Albiste hau idazteko orduan, Turkiako leku ugarian jendea zutik protestan ari da.

Protesta hori kontraste handia da orain arteko poliziaren jarrerarekin alderatuta —negar-gasak, tiroak eta tankeetatik ura botatzen ibili dira—, baita poliziari erantzun

gisa bortizkeria erabili duten manifestarien jarrerarekin ere.

The Guardian egunkarian argitaraturiko artikuluko batean, Richard Seymour egileak ondorengo analisia egin du: "Erresistentzia pasiboa ez da soilik neurri sinbolikoa, boterea nahastu egiten du eta bere kalkuluak oker egitera eraman. (...) Gunduzen protestak bi alde ditu, aurre egiten dio botereari eta aldi berean galdera planteatu: Jo egin behar dute? Zergatik? Bera bertan zutik besterik ez dagoen pertsona da. Beraz, bakarrik utzi? Orduan irabazi egiten du, ezta?" ■

Poliziaren aurrean duin



Youtuben ikus daiteke Erdem Gunduz zutik eta tinko, poliziak bere gauzak erregistratzen dituen bitartean.

argia.com Turkiako azken gertaeren eta herrialdearen egoeraren inguruko informazioa Argia.com/turkia kanalean aurkituko duzu.



Lingolang webgunea, haurrak hizkuntza erakusle

TOPAGUNEAK ireki du Lingolang webgunea. Haurrak dira protagonista. Errusieraz, guaranieraz, errumanieraz, amazigeraz, urduz eta beste hainbat hizkuntzatan hitz egiten entzun daitezke. Haien jatorrizko hizkuntzak dira. Euskararen eta Euskal Herrian ditugun beste hizkuntzen arteko zubia eraiki nahi du Topaguneak. Hortaz, webgunean ageri diren haurrek hainbat hitz eta esaldi haien hizkuntzan nola diren erakutsi digute bideo bidez. Topaguneak hiru helburu nagusi lortu nahi ditu Lingolan baliatuz: ikastetxeetako hizkuntza aniztasuna islatzea; hizkuntza horiek ezagutu eta hiztunei aitortza egitea; eta ikastetxei eta gurasoei aniztasuna lantzeko baliabideak eskaintzea.

“Berria” egunkariaren estilo liburua sarean

PAPERETIK DIGITALERA jauzi egin du *Berriaren Estilo liburua* eta hamaika abantaila izango ditu. Besteak beste, etengabe berritzeko aukera izango du.

Sarea baliatuz, erabiltzaileek edonolako galderak egin ahal izango dituzte eta *Berriako* lantaldeak erantzunak eskainiko ditu. Kontuan hartuta sarean gero eta gehiago idazten dela, idazkera horren berezitasunei erreparatu die, eta informazioaren joskera, hipertestu eta loturak, interaktibitatea eta multimedia elementuak landuko dituzte. Hemen aurkituko duzue *Estilo liburua*: <http://www.berria.info/estiloliburua/>



Bahea

Jabier Zabaletak Karkara.com-en esanak:

“2011ko otsailean Orioko kultur etxean egindako ‘Ori. Euskarazko arnagunea sendotu’ jardunaldiaren ondorio nagusietako bat hau izan zen: herritarren azken urteotako lanaren bitartez, lortu dugu gure gazteek euskaraz normal samar bizitzea eta beren ohiko bizimodua batez ere euskaraz izatea, beren inguruko ekosistema euskalduneari mugitzen direnean; baina, behin hortik ateraz gero, oso erraz egiten dute gaztelaniara salto, ez dutelako barneratuta euskararen aldeko jarrera kontziente. Orion bizi daitezke euskaraz jarrera kontziente hori gabe ere; baina, kanpora doazenean (Donostiara, Bilbora, unibertsitatara, lanera...), braust egiten dute hizkuntza-aldaketa, tresna ideologikoak falta zaizkielako euskarari eusteko”.

EKONOMIAREN TALAIAN • TERMOMETROA

Enpresa publikoen kudeaketa kaskarra

AZKEN ASTEETAN hainbat albiste kaleratu da, EAEko, Nafarroako eta foru aldundietako gobernuek kudeaturiko enpresa publikoen inguruan. Hala, Nafarroako Gobernua zenbait enpresa publiko desegiten ari da, azken urteetan hamarnaka milioi euroko galerak izan ondoren. Nafarroako enpresa publikoen galerak 32,2 milioi eurokoak izan ziren 2011n eta 65 milioi eurokoak 2012an. Gehien galdu duena Sodena izan da (Nafarroako Garapen Elkarte) eta haren atzetik daude NDO (Los Arcoseko zirkuitua eta Tuterako Nekazaritza-elikagaien Hiria kudeatzen duena), CEIN eta GAN. EAEn, Barakaldoko BECek galera handiak ditu, 320 milioi euro hain justu. Bilbao-Ria-2000 elkarteak “crack” egiteko zorian da, 203 milioi euroko zorra baitu. Zubietako errauskailua justizia epaitegietan da, EAJko aurreko foru arduradunen kudeaketa dela-eta, eta abar. Horrek guztiak langileei eragiten die, EEKak eta soldata jaitsierak ezarri nahi

baitzaizkie. Enpresa horien arduradun politiko UPN –Nafarroako kasuan– eta EAJ –EAEko kasuan– dira. Egoera hori, Hego Euskal Herriko enpresa publikoen kudeaketaren adierazle ezkorra da. Batzuek esango dute finantza eta ekonomia krisiagatik izan dela. Onartu genezake arduraren zati bat krisiari dagokiola. Baina erru handiena, euren erantzukizuna onartzen ez duten alderdi politikoena da, ez zituztelako helburuak ondo kudeatu eta planifikatu, ez zituztelako arriskuak aurreikusi, eta batez ere, krisiaren kontrako neurriak ez zituztelako garaiz hartu. Orain dabilena baino askoz trafiko handiagoa aurreikusi zen Artxandako tunelen eta Supersurraren esplotazioa –Bizkaiko Diputazioaren esku– esaten ari garenaren beste adibide bat da. Eta horrela dabilta!

Juan Mari Arregi



Telebista publikoa, salgai jarrita dagoen Greziaren ikur

“Elliniki Radiofonia Tileorasi” (Greziako Irrati-Telebista) dio eraikinaren goiko aldean hizki handiz. Justu azpiko solairuko leihoetatik eskegita dagoen pankartak: “Esnatu. Egin zerbait. Dena ari dira saltzen”. Irrati eta telebista publikoak Troikaren igitaikadatik salbatzeko guduan asko jokutzen du Greziak... eta berarekin Europa osoak.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

EKAINAREN 11KO GAUA AHAZTUKO duen greziarrik ez da. Gauerdi izateko ordu erdiren faltan itzali zuen gobernuak bertako telebista publikoa, irratiez gain. Noiz ezagutu da horrelakorik Europan?

Greziaren bertan askok estatu kolpetzat hartu zuten. Itxieraren bihar-munean *El Pais*en plazaratu “*El cierre de la televisión pública lleva de nuevo a las calles la protesta griega*” kronikan Marianjela Paone korrespondentsekin kontatu du ERT kateko langile gehienak eraikinean gotortu zirenen arren, bertan 27 urte dokumentalista lanean daramatzan Mariak fardel txiki batean atera zituela bere puskak: “Ez nituen nire karpetak galtzeko arriskuan utzi nahi. Hau estatu kolpe baten antzekoa izan da”.

Gazteek ez dakizkiten arren kontuok, aurretik beste behin itzali du telebista gobernuak: 1973an, *Junta* militarra zegoelarik agintean. Orduan bezala, agintariek hedabide publikoa itxi eta kalera protestan mundua atera da.

ERT zabalik edo itxita egongo da ARGIA hau irakurleenganaino heldu orduko? Lerrook idazteko egunean jakin da Atenaseko Auzitegi Gorenak agindu diola Gobernuari berriro piztea. Aurretik Andonis Samaras lehen ministroak bazkide dituen bi alderdiek eskatua

zioten gauza bera.

Britainia Handiko ezkertiar askoren erreferentzia den *Red Pepper* aldizkariaren gunean Hilary Wainwrightek idatzi du itxi zuten eguneko kronika, “*The day Greece’s TVs went dark*” (Greziako telebista amatatu zuten eguna), gertakizuna bere testuinguruan hobeto ulertzeko argibide askorekin.

Samarasek gau erdirako iragarritako itxiera ordu erdiz aurreratu zuen Gobernuak, jendearen erreazioaren beldur. Berehala bildu ziren 800 lagun Tesalonikako eraikinaren atarian, dozenaka milaka Atenasen. Han bilduen iritzia nagusia bere egin du Wainwrightek: Samarasen kontrako borroka hau demokrazia salbatzekoa da.

Ez zen egun hartako lehen mobilizazioa. Aurretik zientoka jende zeuden bildurik SOS te to Nero aliantzak deiturik, ur konpainia publikoak pribatizatzeke lege berrien kontra oihuka. Galdezka joan zitzaizkien kazetariei garbi aitortu zieten beren mesfidantza ERTn nagusi den klientelismo ustelarekiko, aldi berean bat eginez pribatizazioaren kontrako borroka berriarekin.

Munduko Bankuak azken hamarkadotan Amerika, Asia eta Afrikako herrialde askori ezarri dioten errezeta –argaldutako estatua eta

Reuters agentziarentzat Yorgos Karahalisis argazkilariak egindako fotoan, ERT telebista katearen kontrol nagusia ari den langileak malkoak xukatzen, ekainaren 11tik 12rako gauean. Ondoko egunetan Internetez segitu zuten programak eskaintzen. Siriza alderdiko Alexis Tsiprasek esan zuen: “Atzo ikusita-koak aurrekaririk ez du ez Grezian, ez Europan. Telebista publikoa ez da itzaltzen ez bada edo herrialdea atzerriko armadak inbaditu duelako, edo estatu kolpe bat gertatu delako”. Hamaikagarren greba orokorra zen egun hartan. Aste beteko istilu eta protesten buruan, Auzitegi Gorenak agindu dio Gobernuari telebista berriro piztea. Tsiprasek Syn-tagma plazan protestan bilduei alderatu zien Samaras “kiebraren Napoleon” batekin: “Baina Samaras ez da ohartu [Napoleon ohartu ez zen bezala], ez zuen aurreikusi Waterloo hau... ERT langileek eta herriaren gehiengoak antolatuta diotena”.

pribatizatu publikoa den oro–Europaren bihotzean ari dira aplikatzen Troika daukatela esku-makil. Greziako irratia eta telebista aldi baterako itxtearekin estrategia horri fruitu hirukoitza aterako liokete: batetik ERT osorik edo zatika pribatizatzea, bestetik komunikazio-ko erraldoienak diren kate pribatuaren nagusitasuna finkatu, azkenik Estatua ahultzea.

Samarasek elektroshocka maite

Greziaren lanpostua lortzeko edo sisteman aurrera egiteko oso inportantea omen da *visma*, Hegoaldeko euskaldunok gaztelaniatik harturik *entxufe*a esaten duguna, frantsesezko *piston* kontzeptuaren parekide. Telebista greziarra omen da herrialde horretako klientelismoaren ale hauta, langileen buru nagusi daudela politikariek *entxufatuak*.

Amatatu behar zuten egunean tertulia batera konbidatu baitzuten Wainwright, Europako hedabide ezkertiarren elkartasuna adieraztera joana, telebistan bizi den entxufismoaren xehetasun asko ezagutzeko aukera izan zuen. Natasha izeneko kazetariak esan omen zion: “Nire enkargatuak ez daki ezer; ez jakiteagatik, ezta ingelesez ere”.

Administrazioaren atal orok klientelismoa eduki du lege bakar, azpikoei beldurrez eta zatiketaz



ezarriz bere nahia. “Entxufatuek bakarrik zekiten nola funtzionatzan zuen zirkuituak”, idatzi du Wainwrightek. “Baina zirkuitu zaharrak funditu egin dira finantzen krisiaren eta murrizketen eraginez, horregatik proiektuen biziraunarazten ari direnek konexio berriak antolatu behar izan dituzte, sare zaharretik aparte”.

Ironiak ere sartzen baitu behatza historian, bitxikeria gertatu da Grezian ERT irrati-telebistako langileek komunikatzen segitzea erabaki dutenean. Gobernuak emanik erai-kinei argindarra eteteko agindua... ez diote obeditu elektrikariek, komunikaziorako beharrezko *entxufe* benetakoak, loki fisikoak, segurtatu dituelako ustelkeriarik

gutxiena edukitzeko fama merezia duen elektrikarien sindikatuak.

Elektrizitatea ez izan aski, ordea, espazioan dabiltzan sateliteak behar ditu gaur eguneko komunikazioak. Andonis Samarasek Israelen aurkitu du laguntza, honen sateliteek bermatzen dutelako Greziako komunikazioa, eta bien tratuari esker telebista publikorik gabe geratu dira greziarren pantailak. Kate pribatuak, aldiz, sasoi betean; hauetatik bidali ditu bere mezuak lehen ministroak, ezin ukatu agerikoa dela honen sinbolismoa...

ERTko berriemaileek Internetez zabaltzen segitu dute beren seinalea, baita Auzitegi Gorenak berriro telebistak iziotzeko agindua eman ostean ere. Kronikek azaldu dute-

nez, Greziako baserri inguru askotan batere telebistarik gabe geratu dira, haraino ez delako heltzen pribatuen seinalea, garestiegia nonbait. Eta mugako herri askotan ikus zitekeen telebista bakarra... turkiarra zen, “etsaiarena!” esango lukete zaharrenek. Porrot egin duen Estatuak ezin ditu nazionalismo greziarrak eskatutako minimo sakratuenak ere bermatu.

Zein estrategia ote darabil Andonis Samarasek? ERTren likidazioaren interpretazio hutsik ekonomikoa zabaldu dute Europako hedabide nagusiek hasieran, alegia Samarasek hortxe aurkitu duela Troiak eskatzen dizkion murrizketak kolpe bakarrean burutzeko modua, porrot egin ondoren gas konpainia saltzeko asmoak.

Open Democracy gunean Ilektra Tsakalidou diplomatikoak ildo berean idatzi du orain beranduegi ari direla protestan ERTko langileak, urte gehiegiz isildu dituztela ustelkeriaren gehiegikeriak eta korporazioa bideragarri egiteko plan bat ere ez dela ikusi.

Aldiz, Tesalonikako unibertsitateko irakasle Alex Benosek *Red Pepper* erreko Wainwrighti adierazi dio Samarasek test bat egin duela horrelako shock bat eraginda, zein urruti iristeko prest dagoen erakusteko. Baita Urrezko Egunsenti ultraeskuindarrekoekin tratua egiteko ere, hala behar badu.

Wainwrightek dio amaitzeko: “Garbi dago [ERTren gatazkak] garrantzia daukala Greziaz gain Europa osoarentzako”. ■







**ZINKUNEGI
OPTIKA**
Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Xabier Letona

◆ ARGIAKO ZUZENDARIA



DANI BLANCO

Gero eta inguratuago

YOLANDA BARCINA eta Nafarroako herritar ugari Espainiara begira dira, aspaldi ez moduan gainera. Auzitegi Gorenak erabaki behar du Nafarroako Gobernuko lehendakaria CAN auzian inputatuko duen ala ez. Miguel Sanz, Enrique Maya, Alvaro Miranda eta Enrique Goñi dira orain arteko inputatuak eta Maria Paz Benito epaile nafarraren ustez, badira zantzuak pentsatzeko CANek erosi egin zituela aipatu lau politikariak gehi Barcina lehendakaria. Bai, eroskeria delitua litzateke eta modu horretan Goñik eta CANek saihesten zuten Nafarroako Gobernuak beren jardura fiskalizatzea. Hori guztia noiz, eta CANen desagertze prozesua bideratu den azken laupabost urteetan. Politikarien erosketa, besteak beste, CANeko Entitate Sortzaileen Iraunkorreko azpibatzorde ospetsuaren bidez egiten zen.

Zer erabakiko du orain Gorenak? Noizko? Airean da, baina pentsatzen da honek guztiak CAN auzia geldotu egingo duela. Kezkak handiak dira han-hemenka, UPN eta Barcinarenean inputazioak aurrera jarrai dezan, horrek lehendakaria dimisioaren atarian jar dezakeelako.

Kontuz elkarte eta oposizioko alderdietan ere bada beldurra, Madrilen auzia jarraitzea askoz zailagoa zaielako eta han, berau desegiteko edo indargabetzeko aukera eta presio politikoak, handiagoak direlako. Nafarroa gai delikatu eta preziatua da Estatuarentzat, eta hori presio politikoetatik at gera daitekeela pentsatzea erabat inozoa da.

Bitartean, Nafarroako herritarren artean, sumindurak zabaltzen eta hazten jarraitzen du egunetik egunera. Horren erakusle argia izan



XABIER LETONA

zen iragan larunbatean Iruñean Barcinaren dimisioa eskatzeko egin zen manifestazioa: 10.000-12.000 pertsona izan ziren bertan, kolore eta izaera oso anitzekoak. Nafar gizartean ez da asko arakatu behar herritarren artean haserrea oso handia dela antzemateko.

Eta zurrumbilo guztiaren erdian, sarri egiten diren galderak: Noiz arte eutsi ahal izango dio Barcinak dimititu gabe? Noiz arte

tzen utziko du, besterik gabe? Edo zeregin aktiboa hartuko du Gobernuaren erorketan edo zokoratzean? Ikusgai dago, baina PSNk zerbait egin beharko du hauteskundeetara aktiboren bat eramateko, eta hori izan daiteke legealdiko azken urtean egin dezakeen mugimendu garrantzitsua. Hori guztia, jakina, aldeztu aurretik Gorenaren erabakiak Barcina dimititzera behartzen ez badu.

Euskaldunoi dagokigu erakustea zerk bereizten dituen .es eta .eus, bestela markaren indarrak jai izango du euskaldunontzat

UPNk? Ez dago erantzun argirik eta hobe ez gehiegi arriskatzea, orain arteko hauteskunde aurreratu iragarpen guztiek porrot egin dute eta. Eta galderek, apirilean Barcinaren aurkako zentzura mozioan gertatu zen moduan, UPNra baino PSNra begiratzea eramaten dute. Nafarroako Legebiltzarren legealdiaren erdia pasa berri denean, PSNk berau agor-


.EUS da euskaldunok mundura agertzeko dugun marka berria eta, nahi badugu, eraginkorrenetakoa ere bihurtu daitekeena. Euskal Herrian biltzen garen herritar guztiak bil gaitzake, eus-

karaz, gaztelaniaz, frantsesez, arabieraz edo txineraz mintzo... baina orduan euskaldunoi dagokigu erakustea zerk bereizten dituen .es eta .eus, bestela markaren indarrak jai izango du euskaldunontzat. Erronka bat gehiago egunerokoan sarea euskarazko edukiekin elikatzen aritzen garen guztiontzat. ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Arbelaitz Jatetxea

Afaria
bi lagunentzat

Mikeletegi pasealekua, 53
Donostia GIPUZKOA

www.arbelaitz.com

1

Ekain berri



Ekainberri

3 harpidunentzat
bina sarrera

Portale, 9
Zestoa GIPUZKOA

www.ekainberri.com

2



Bilboko Euskal Museoa

3 harpidunentzat
bina sarrera

Miguel de Unamuno plaza, 4
Bilbo BIZKAIA

www.euskal-museoa.org

3




Artium Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

3 harpidunentzat
bina sarrera

Frantzia, 24
Gasteiz ARABA

www.artium.org

4



Ertzeko zatiak

Jon Sarasua

2 liburu opari

www.argaia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2373. Argia)

A FUEGO NEGRO Jatetxea

- Antonio Amondarain Aizpurua (Andoain)

EUREKA! Zientzia Museoa

- Jon Mikel Barandiaran Arratibel (Errenteria)
- Andoni Alba Salaberria (Iruñea)
- Joxemari Muxika Arrieta (Arrasate)

IRUÑEKO PLANETARIOA

- Iñaki Korta Larrañaga (Eibar)
- Fernando Bustillo Maestro (Donostia)
- Imanol Alvarez Gartzia (Bilbo)

ARTIUM Arte Garaikideko Euskal Zentro-Museoa

- Tere Insausti Irastorza (Zaldibia)
- Eneko Gorri - Mairie de Biarritz Herriko Taberna (Biarritz)
- Ermuako Udal Euskalegia (Ermua)

MUNDUKO IPUINAK

- Rosa Mari Borda Egia (Azpeitia)
- Malentxu Arrospide Arrate (Lizartza)

* Bisitaldiatarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • gunaia@argaia.com

www.argaia.com/gunea

gunea

argia



ATXEGA JAUREGIA

jatetxea

ATXEGA
JAUREGIA



Aitzezarra, 1

Zumartegi industrialdea

© 943 37 11 50

21070 **Usurbil** (Gipuzkoa)

www.atxegajauregia.com